



ARGIA

Kendu zure bizitzatik 100 toxiko

Nola egin kosmetiko seguruak etxean

26-31. orrialdeak



2.895 | 2024 / 12 / 01 | 4,00 €



Kolonoek lapurturiko 500.000 artelan berreskuratzeko borroka

12 | AFRIKA



“Larrialdi bateko neurriak hartu behar ditugu, erradikalak”

32 | LUIS GONZÁLEZ REYES
DESZKUNDEAZ



“Inportantea da esatera ausartzea, nahiz ez gustatzeko arriskua izan”

32 | LUXUE ALBERDI

Euskararekin
gora eta gora
beti!

Gora Gora FEST 2024

**AZAROAREN 2tik
ABENDUAREN 8ra**

50 ekitaldi baino gehiago, Nafarroako txoko
guztietan, haur, gaztetxo eta familientzat,
Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko.



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **IBAI ARRIETA / ARGIA CC BY-SA-NC-ND**

Iritziak

- 21 | MIKEL ZURBANO
- 22 | CIRA CRESPO
- 23 | MIKEL OTERO
- 23 | CASTILLO SUAREZ
- 24 | MATI ITURRALDE

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

JAUME FERRANDO / LA DIRECTA CC-BY-NC-SA



32 | **DESZAKUNDEAZ ELKARRIZKETA**

“XX. mendearen amaieran guk mundu bat ezagutu dugu eta hori gainbeheran dago, deitu horri kolapso edo nahi duzun moduan, eta ezezagunak zaizkigun egoeratan sartzen ari gara”, esan dio Luis González Reyes-ek Xabier Letona kazetariari. Irtenbideaz aritu da: “Gizartearen metabolismoa gehiago izan behar da nekazaritza iru lotuagoa industriari edo zerbitzuei baino”. Erronka soziala aberastasunaren birbanaketa dela esan du.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HUBIL

Kolono europarrek afrikan lapurturiko 500.000 artelanak itzultzeko ariketa nekeza

Jenofa Berhokoirigoin

16 | PERTSONAIA | ARAN CALLEJA

“Musikan, emakumeok lan handia egiten ari gara ikus gaitzaten”

Onintza Enbeita

26 | INGURUMENA

Nola garbitu eta zaindu, gorputza eta Lurra kutsatu gabe?

Estitxu Eizagirre

44 | KULTURA | UXUE ALBERDI

“Konplexutasuna agertzeko lekua da literatura, ez lezioak ematekoa”

Danele Sarriugarte

48 | KULTURA | GEROTIK GERORA...

Zer egin? Galdera handiak eta ametsak

Paul Beitia


 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**
Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Julene
Flamarique, Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Leire Ibar, Manex Moreno, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Korta

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012
ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:





Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA

OLATUKOOP

 Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara

The image shows two mannequins in a store or gallery. The mannequin in the background is wearing a dark blue, sequined, off-the-shoulder gown and has a silver foil mask covering its face. The mannequin in the foreground is wearing a light-colored, heavily beaded and sequined dress and also has a silver foil mask. The background is a plain, light-colored wall with some ceiling lights visible.

Apartheid ona

TalibaneK Kabul mendean hartu zuten 2021eko abuztuaren 15ean, tropa estatubatuarrek alde egin ostean. Orduetik, Afganistango botere oro kudeatzen dute inolako oposiziorik gabe. 20 urtez, gerra bidegabe eta anker batean, Mendebaldeko potentzia nagusiek afganiarrak masiboki sarraskitu ondoren, orain uste dute hobe dela etsai zenarekin elkarlanean aritzea, talibanak "solas egiteko eta kolaboratzeko prest" baitaude. Baina errealitatea da, azken hiru urteotan, Afganistango emakumeei bizitza publikoaren ia alderdi guztiak debekatu dizkietela: eskolak, unibertsitateak, lantoki gehienak, kirola... Jendaurrean aurpegia estalita eta gizon batek lagunduta egon behar dute. NBEk "genero apartheid-tzat" jo du egoera, baina praktikan, hori guztia gertatzen da feminismoaren pina paparrean daraman Mendebaldearen onespenearekin, Europako gobernu nagusiak barne.

📌 Saltokietan debekatuta dago emakumezko aurpegiak erakustea, baita manikietan ere. Ezkontza jantziak saltzen dituen Kabulgo denda hau, kasu. / AP



Eroritakoan Monumentua Maravillas Lamberto zentro bihurtuko dute

 URKO APAOLAZA AVILA

Adieraberritzea adostu dute EH Bilduk, PSNk eta Geroa Baik Iruñeko Udalean. Eroritakoan Monumentua ez dute osorik eraitsiko azkenean, baina "sinbologia frankista duten" elementu arkitektonikoak kenduko dizkiote, eta itxura zein esanahaia ere aldatu egingo dira.

Denbora asko eraman duten eztabaida eta negoziazioen ostean, akordio politikoa erdietsi dute hiru alderdiek eraikinaren inguruan, eta azaroaren 20an eman dute horren berri, Franco hil zen egunean, hain zuzen.

MARAVILLAS LAMBERTO ZENTROA

Iruñeko Eroritakoan Monumentua 1942an jaso zuten, 1936ko Gerran altxamendu militarren alde hildakoak gogoratzeko. Frankismoak eraikitako halako izaerako monumentu handiena da, Madrilgo Cuelgamurosen dagoen Erorien Haranaren ostean. Horregatik, alderdi horiek azaldu dute eraikinarekin modu "irmo, argi eta adierazgarrian" jokatu behar dutela.

Espazioari esanahaia guztiz aldatzea adostu dute, faxismoa salatzeke memoria demokratikoaren zentro bihurtuta. "Maravillas Lamberto" izena jarriko diote zentroari, 1936an frankistek hildako Larragako neskatilaren omenez.

Eraikinari esanahaia guztiz aldatzeke akordioa egin dute EH Bilduk, PSNk eta Geroa Baik, faxismoa salatzeke memoria demokratikoaren zentro bihurtuta

KUPULA ESTALITA

Besteak beste, egun monumentuaren sinboloa den kupula handia estali egingo dute. Kanpoaldetik eraikina ez da orain bezala ikusiko, "sekularizatua" baizik, eta barrualdetik ere, agerian dauden Ramón Stolzen margo frankistak estali egingo dira; soilik helburu pedagogiko eta kritikoekin ikusi ahal izango dira.

Gainera, Emilio Mola eta José Sanjurjo militar faxisten kriptak eraitsi egingo dira, egun dauden marmolezko harri eta inskripzioak eta guzti.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

"Etapari historiko horren [Frankismoaren] irakurketa kritikoa eskaini, eta belaunaldi berriei ideologia faxistaren arriskua eta balio demokratikoaren eta giza eskubideen etengabeko defentsaren beharra" azaltzea izango dira zentroaren helburuak.

Horretarako, lehiaketa publiko bat egongo da, baina aurretik herritarrekin batera espazioaren ezaugarriak definitzeke parte hartze prozesua eramango dute aurrera. Gainera, beharrezko lege aldaketak egiteke proposamenak aurkeztuko dituzte "eraikinaren eraldaketari segurtasun juridikoa emateko".

FUSILATUEN SENIDEAK HASERRE

NAFSE, Nafarroako Fusilatuen Senitar-tekoan Elkarteak akordioaren kontra azaldu da guztiz. Elkartek uste du eraikina eraitsi egin beharko litzatekeela, eta gogor kritikatu du espazio horretan oroimen demokratikorako interpretazio zentroa jartzeko asmoa: "Badaude beste aukera eta toki batzuk pedagogia egiteko", esan du Amaia Lerga NAFSEko presidentek. Bere iritziz oroimenerako tokiak "adierazgarriak" izan behar dira biktimenzako, eta Eroritakoan Monumentua "kontrakoa" da.

Maravillas Lambertoren izena "erabiltzea" salatu du NAFSEk. Ahizpa Josefina Lamberto monumentua eraistearen alde zegoela dio, eta "berriz biktima" bihurtzea litzateke bere ustez. Gainera, erabakia hartzeke modua ere kritikatu du, ez baitu akordioaren berri izan publiko egin aurretik, eta "inposatutako" proposamen gisa hartu du.

Bestetik, eraikina eraistearen aldeko elkarten plataformako kideek prentsaurrean esan dute "triste, engainatuta eta haserre" sentitzen direla akordioarekin.

ALDEKO MANIFESTUA

Talde memorialistetan eta oroimen historikoaren arloan dabilzan Nafarroako 30 historialari eta adituk manifestua sinatu dute akordioa babesteko.

Zenbaiten kasuan eraikina eraistearen alde egon arren, "eztabaida publiko desblokeatzeko" urrats garrantzitsua dela iritzi dute, eta txalotu egin dute Maravillas Lambertoren izena "Iruñeko erdigunean" jartzea. Manifestuaren aldeko atxikimendu gehiago ari dira biltzen orain. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Zuekin nahi dut



UXUE APAOLAZA LARREA

Gutxi ateratzen naiz azken urteetan. Askotan esan dut, badakit, baina badaezpada ere. Bertso saio batera joan naiz gaur. “Bejondeizula”. Bai, horregatik abisatu dut gutxi ateratzen naizela, pentsatzen dut zuek kultur ekitaldi askotara joaten zaretela, eta konparatzeko gehiago daukazuela. Baina egongo da, agian, ni bezala dabilenen bat, emakumez ari naiz bereziki, *hauguztialasaitzende-
nean* nora itzuliko den pentsatzen (zaintzaren bat-edo, gure gauzak)(gizonen bat ari bazen irakurtzen emakume batek idatzitako zera hau, utz dezake nahi badu, oso astun jarriko naiz). Izan ere, ez da beti gertatzen ateratzeko aukera izan, eta gehiago atera nahi izateko gogoz amaitzea. Itzulera batzuk ezin dute lehengo leketara izan.

Gaur igo dira oholtzara Ainhoa Agirreazaldegi gai-jar-tzaile, eta Nerea Ibarzabal, Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio bertsolari. Lehenago, Irene Arrarats eta Maialen Berasategi aurkezle eta saioak oinarri duen podcastaren egile. Podcasta (*Ezer ez eta festa*) hizkuntzari buruzkoa da, euskarari buruzkoa hein handian. Ez dirudi genero bati besteari baino interes handiagoa sortzeko gaia. Usurbilgo Aginaga goraino zegoen, eta gizonak, zer, hamar (ez nituen zenbatu)? Eta ez elkarrekin. Tira, ba ez zaie ezer interesatzen, beraiek egiten ez badute (adibidez, guk egiten badugu). Zeren eta irakurri berriro oholtzara igo direnen izenak. Edo berrirakur ditzadan nik oraintxe idatzitako lerroak, hobe. Goraino zegoela esan dut. Eta paisaia zora-garria zen goian, eta behean. Beraz, agian, kexak eskaera behar luke: ez zaitezte asko azaldu, eta inoiz ez taldean.


Oholtza gainekoa oso sexya zen; ezin da listagoa izan. Ze plazer intelektual jostaria. Eta elektrizitatea joan de-nean, mikrorik gabe, Lujanbioren ahotsa ozen sartu zait, ozenago, eta, fisikoa da, gorputza tentetu zait eserlekuan; eta kantatutako hori gehi esan gabeko bost gehiago igurtzi dizkit Alberdik irribarrearen ertzaz; eta laztana zaplazteko bihurtzen den puntu horretan menderatu Ibarzabalek. Esan dut, ez? Oso sexya dena, eta, bai, bai, gutxi ateratzen naizela azken urteetan.

Eta adin ugariko publikoa, ni bezain ile urdineko asko. Haizea kanpoan. Ze goxo han, atzeko eserlekuetan, emakumez eta emakumez inguratuta. Ze listak denak. Butaka bat eta mantatxoa falta nituen (eta eskatzen jarrita, Martini bat eta zerbait erre ahal izatea). Eta hantxe geratuko nintzatekeen orduak eta orduak, zuen barreak entzuten. Gutxi ateratzen naiz azken urteetan, eta itzultzen banaiz, zuekin nahi dut, neskak. Ulertzen didazue? ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Iruzurra aitzakia



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI

Lanbidek Diru-sarrera Bermatzeko Errentetako iruzurraren aurkako kanpaina jarri du martxan, eta salaketetarako buzoi anonimoa sortu du. Jaso dituen kritikei erantzunez, adierazi du buzoi hau salaketak eta jakinarazpenak ordenatzeko tresna huts bat dela. Ez du ez klase irakurketarik, ez zaurgarriekiko kriminalizatorik bultzatzen, eta ez du, nola ba, herririkideon artean polizia lanak egitea sustatzeko helbururik.

Egia esan, azken kanpaina horrek ez nau bereziki harritu. Ez nau harritu, sistemak kolektibo zaurgarriak kriminalizatzeko saiakera behin eta berriro egiten duelako; erraza, merkea eta segurua delako hori. Diru-sarrera Bermatzeko Errentetako iruzurrarena kontu zaharra da, oso hedatua, eta faltsua: %0,7ko iruzur tasarekin, ke-laino hutsa da.

Akaso, Lanbideren kanpainak zerbait ona badu, kexa eta salaketetarako tresnei buruz hitz egiteko aukera eman izana da. Izan ere, 2023. urte amaieratik legez araututa daude “salaketetarako kanal etikoak”. Kanal horiek enpresen eta erakundeen gardentasuna eta jarrera etikoak bultzatzea dute helburu, eta horretarako, salatzailearen segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzen dute. Oso tresna baliagarria izan daiteke antolaketa sindikal baxuko erakundeetan edota zaintza eta jazarpen protokoloetan hutsuneak dituzten kasuetan. Izan ere, jazarpena salatze muga handietako bat izaten da salatze beldurra.

Dena den, ez du ematen Lanbideren ekimenaren atzean halako helburu onik dagoenik. Gehiago du, neure ustez, eskuin muturraren diskurtsoa bultzatetik eta klase borrokatik, gizarte kohesio eta zaintza komunitariotik baino. ●

“Mugikor tentelen” demanda eta deskonexio digitala

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Internetik, Whatsappik, sare sozialik gabeko mugikorrengeatik aldatu du smartphonea gazteen %12,2k, Espainiako Estatuan. Funtzio oinarritzakoak baino ez dituzten mugikorrek erosteko bilaketak %215 hazi dira urtebetean. Desazkunde (eta desintoxikazio) digitalaren aldeko mugimendua handitzen ari ote da?

Bitxia da, Internetik gabeko aroa ezagutu ez duten gazteak dira batez ere beren mugikorretan deskonexio digitala bilatzen dutenak. Hala dio SPC konpainia teknologikoaren txostenak. Mugikor adimentsuekiko menpekotasuna murriztu eta denborarekiko kontrola berreskuratze aldera, deskonexio digitala joera bilakatzen ari da telefono eramangarrietan, dio txostenak; hori bai, gutxiengoa dira oraindik dumbphone (mugikor tentelak) deiturikoak dituztenak (%12-20 artean). Deitu eta deiak jasotzeko, musika entzuteko, argazkiak ateratzeko... balio duen mugikorra nahi dute, ez besterik. Pista bat: prezioak konparatzeko erabiltzen den Idealo webgunean, 2023ko irailetik 2024ko irailera %215 hazi da mugikor tentelak bilatzen dituztenen kopurua, Espainiako Estatuan.

“Teknologiarekin (eta zenbat eta teknologia gehiagorekin) beti da hobeto” mantrarekiko gero eta ahots kritiko gehiago entzuten da; sarri, haurtzaroari eta hezkuntzari lotuta dator mezua, dela lehen mugikorra izateko adina atzeratzeko beharra, dela pornografiarekiko eta sare sozialekiko kezka, eskolaren digitalizazioa birpentsatzeko aldarrikapena... Ez alferrik, smartphone eta sare sozialek buru osasunean, antsietatean, menpekotasun emozionalean... izan ditzaketan eragin kaltegarriak bereziki haur eta nerabeen artean islatzen direla diote azterketek. Chromebook bezalako betetako ikasgelak panazea gisa saldu zizkiguten, baina prozesu analogikoak ez alboratzeko premia eta eskolan teknologiarik gabeko espazioak izatearen garrantzia azpimarratu dute, zer eta teknologian aditu direnek eurek (irakurri ARGIA n kaleraturiko *Teknologiarekiko lilurak ez dezala hezkuntza itsutu* artikulua).

Eta nire buruari galdetzen diot: pixkanaka ba ote dator biraketa bat desazkunde digitalari bide emango diona, eta ez soilik hezkuntzan, gure eguneroko arlo guztiak harrapatuko dituen gogoeta sakonago baten baitan baizik, arrapaladan datorkigun inbasio teknologikoarekin saturatuta dauden herritarren partetik? Besterik ez bada, erritmo hau sostengaezina delako, ikuspegi askotatik. ●





230.000

euroko ekarpena egin dio Errigorak Nafarroako euskalgintzari, saskien bidez. Inoizko ekarpen handiena da. Euskarari Puzka azken kanpainan 16.000 saski saldu dituzte, eta euskararen alde lan egiten duten elkarteei bideratuko zaie lortutako etekina.



933

nobedade eta 200 ekitaldi izango dira aurten, Durangoko Azokaren 59. edizioan. Abenduaren 5ean Ikasle Goizarekin hasiko dute azoka. Hurrengo egunean Gazte Eztanda eguna egingo dute.

60.000

euroko isuna ezarri diote 'Indar Gorri' profilaren kudeatzailari. Sare sozialetan mezu xenofoboak, gorrotozkoak eta indarkeria bultzatzen dituztenak zabaltzea egotzi diote.

“Ez bazara konponbidea, arazoa zara”

EH-KO MUGIMENDU FEMINISTA

Gizonentzako mezua zabaldu du, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira kaleratutako manifestuan.

2024-11-25



“ESAKO URTEGIAREN HANDITZEA ERLOJU BONBA BAT DA”

CHUNTA ARAGONESISTA

Tanta hotzaren gisakoak bertan egokituz gero, Esak ur hori guztia askatzeko gaitasun nahikorik ez lukeela izango eta segurtasun arazo larria litzatekeela ohartarazi du, Espainiako Kongresuan.

2024-11-19

“Sarri Sarri abestea debekatuta omen zegoen kartzelan azken ia 40 urte hauetan. Gaur ozen abestu dugu denok”

FERMIN MUGURUZA

Abeslariak Martutenen eskainitako kontzertua dela-eta hainbat jenderen kezak jaso ostean, Jaurkitzak iragarri du presondegiatan kultur emanaldiak antolatu ahal izateko baldintzak gogortuko dituela.

2024-11-19



TEKNOLOGIA

Hartzea ematea delako



DIANA FRANCO EGUREN

Azken 15 urteetan dugun Internetak hartu duen bilakaera ikusita, duen eredu teknologiko eta negozio ereduari lotuta, gizatasunaren alde txarrenak areagotzeko tresna dela pentsatu dezakegu. Ideia horrekin konforme ez dauden eragileak sortu dira mundu osoan zehar. Honako esparrutan lan egiten dute batez ere: eskubide digitalen babesa (informaziora sarrera, pribatutasuna, adierazpen askatasuna), eta bortizkeria digitalen aurkako borroka. Bide horretan, subiranotasun digitalaren beharra ulertu eta software librean aurkitu dute mundu ikuskera hori sustatzeko eredu teknologikoa.

Aurtengo Durangoko Azokako leloa entzun nuen lehen momentutik, "hartzea ematea da", software librearen iruditegi guztia etorri zitzaidan burura. Software librearen mundu ikuskerak berdin funtzionatzeko baitu: hartzen duzuna partekatuz, denontzako ezagutza handitzea lortzen da eta ezagutza jario hori biderkatzen doa, dugun digitalizazio eredu zapaltzailea ordezkatzeko alternatibak sortuz.

Eragite horretan, mastodon.eus sareak aurrean sei urte bete ditu. Bertan, euskal eremu digitala berresmatzen dabilzan eragile ugari aurkitzen dira, bizitza modu ezberdin ugari bizi daitekeen gisan, eremu digitala modu ugariarekin erlortu daitekeela erakusten dabilzanak. Ez dute azpiegitura handirik, eta askok eremu digitalean egiten duten lana lanalditik kanpo egiten dute. Txoko honetatik, nire esker ona eman nahi diet, egiten ari diren lan onagatik. Eurretako batzuk, zeren asko dira, ezagutu nahi badituzu, Durangoko Azokako Kabi@Digitaleko aurtengo programan parte hartzera gonbidatzen zaitut. ●

NAZIOARTEA

Hagako auzitegiak Netanyahu atxilotzeko agindu du

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN / GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Gizateriaren aurkako krimenak eta gerra krimenak egotzi dizkie Nazioarteko Zigor Auzitegiak Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministro eta Yoav Gallant Defentsa ministro ohiari. Biak atxilotzeko agindua eman dute. Erabakia "antisemitismoa" jo du Netanyahu, eta Hamasek, aldiz, "Justiziarako urrats garrantzitsutzat".

2023ko urriaren 8tik hasi eta, gutienez, 2024ko maiatzaren 20ra arteko epeari so egin eta ondoko krimenak zehaztu dituzte epaian: "Gosetearen gerra delitua, gizateriaren aurkako krimenak, hilketak, jazarpenak eta beste ekintza anker batzuk". Gainera, Nazioarteko Zigor Auzitegiak dio "arrazoizko argudioak" dituela adierazteko bi buruzagiek herritarren aurkako erasoak "nahita egin" zituzeela. Ondokoa irakur daiteke erabakian: "Leporatutako krimenak Gazako zibilen aurkako eraso orokor eta sistematikoaren parte dira".

"Dreyfus epaiketarekin" konparatu du erabakia Netanyahu, urratsa "antisemitizatzat" joz. Bere aldetik, Bassem Na'im Hamaseko mahai politikoko ki-deak ondokoa adierazi du: "Justiziarako

urrats garrantzitsua da, biktimei errepazioa lortzeko aukera eman diezaiekeena, baina apala eta sinbolikoa izaten jarraitzen du munduko herrialde guztiek erabat onartzen ez badute". Erabakia "errespetatzea eta betetzea" galdetu du bere aldetik Europako Batasunak: "Ez da erabaki politiko bat. (...) Auzitegi baten erabakia da, justizia auzitegi bate-na", EBko diplomaziaburu Josep Borrellen hitzetan.

Hagako auzitegiak krimen berak egotzi dizkio Hamaseko buruzagi militar Mohamed Deifi.

HAARETZ JOMUGAN

Bestalde, Israelgo Gobernuarekin kritiko den *Haaretz* egunkaria ekonomikoki itozteko neurriak hartu ditu Israelek: diru publikoa jasotzen duen enpresa eta elkarte orok galarazita izango du publizitatea ipintzea *Haaretz* egunkarian, administrazio eta erakunde guztiek bertan behera utzi beharko dituzte harpidetza guztiak, eta instituzio publikoek ezingo dute hartu-emanik eduki egunkariaren, kazetariari kasurik egin eta sarbidea eman hainbat lekutara. ●



Netanyahu eta Gallant, prentsaurreko batean.

Salatzen dut

📷 ANDONI CANELLADA / FOKU

HENDAIA / Autoinkulpazio kanpaina abiatu dute, Korrikan migratzaileak laguntzeagatik epaituko dituztenekin elkartasunez. 36 migratzailei muga trabeskatzeko laguntza bideratzeagatik epaituko dituzten zazpi ekintzaileei elkartasuna adierazteko batu dira hainbat eragile J'accuse (Salatzen dut) kolektiboan. Epaiketa baino bi egun lehenago, urtarrilaren 26an, manifestazioa antolatu dute Irundik Hendaia.



Uruguai

Fronte Zabala nagusitu da Uruguain, bost urteren ostean. 95.000 botogatik gailendu da hauteskundeetan. Yamandu Orsi izango da Uruguako hurrengo presidentea, Álvaro Delgado eskuineko Alderdi Nazionaleko presidentegaiari aurre hartuta.

Agroekologia

Zestoako Amillubi proiektuak lehen urtea ospatuko du abenduaren 1ean. Biolurrek abiatutako proiektu agroekologikoak jada jarri du lurra martxan, sektorearen beharrei erantzuteko. Baserria eta lurra kolektibizatzeke 100.000 euro falta dute.

Justizia

Nafarroako Unibertsitate Publikoak Justizia Errestauratiboko Titulua eskainiko du 2025ean. Bitartekaritzaren eta pertsonen arteko komunikazio zuzenaren bidez, izaera penaleko gatazka bati konponbidea aurkitzea da helburua.

KOLONO EUROPARREK AFRIKAN LAPURTURIKO 500.000 ARTELANAK ITZULTZEKO ARIKETA NEKEZA

Azaroaren 4an itzuli die Frantziak benindarrei Katakale errege-aulkia, duela 132 urteko triskantzian frantses kolonoek lapurtu zieten. Memoriaren, aitortzaren eta ondare kulturalaren izenean, European zehar dituzten lapurtutako 500.000 objektuak berreskuratu nahi dituzte Afrikako herriek. Independentzia berreskuratu zutenetik, hots, Bigarren Mundu Gerraren biharamunaz geroztik dabilta horretan. Parean, begiak eta belarriak estaltzen segitzen dute Europako herriek –tarteaz, Frantziak–. Tantara-tantara bakar batzuk itzultzen hasiak badira ere, zor historikoa kitatzeko bidea ez dute oraindik irekia.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Dahomey erreinua [gaur egungo Benin] berenganatzeko triskantzian zebiltzala, 27 objektu lapurtu zizkieten Béhanzin erregeari 1892ko azaroaren 17 hartan Alfred Amédée Dodds koronel frantsesaren peko soldaduek. Aulkiak, estatuak, errege-makilak, aldea, palazioko ateak, tronuak... Béhanzinen ondasunen lapurketa baino gehiago, Afrikako lur hori bereganatu izanaren sinbolo zeuzkaten, garaipenaren trofeoak balira bezala. XVI. mendean geroztik mundua kolonizatzen zebilelako Frantzia, XIX. mendean Europa peko kontinente horretan jarrita arreta.

124 urte pasaturik, lapurturikoa itzultzeko eskaera ofiziala egin zion Frantziari Beningo presidentea Patrice Talonek 2016ko uztailaren 27an. Lau urte geroago, itzulera hori ahalbidetzeko lege moldaketa bideratu –legeari segi, Frantziaren "ondare besterenezinak" direlako jabetza horiek– eta itzuli zitzaizkien horietatik 26. Hain zuzen, inbentarioan zeukan bat eskas zitzaion Pariseko Quai Branly museoari eta ez zekien non zen... Mendebaldeak Afrika-ko artearentzat daukan aitortzaren eta

konsiderazioaren isla genuen hor. Horatik hiru urtera, arte garaikidean dabilen Beningo Zinsou Fundazioko buru Marie-Cécile Zinsouren tematze eta bilaketari esker atzeman zuten: Finlandiako museo nazionalako sotoan zeukaten, noizbait beste artelan batekin trukaturiko Katakale errege-aulki ospetsua. Azaroaren 4 honetan itzuli diote Benin herriari, iraganeko Dahomey erreinua eta pairaturiko kolonizazioaren lekukoa. "Objektu hori ez dute faltan botako finlandiarrek ezta frantsesek ere. Pentsa, [jakin gabe] erreserban zuten. Guk bakarrik ikusi ditzakegu Katakale errege-aulkiaren inportantzia eta edertasuna. Berreskuratu behar genuen, norberaren kultura eta ondarea eskura ukaiteko eskubideaz ari garelako. Kontinenteen arteko elkarriketa dago oinarrian", dio Zinsouk.

2021ean 26 obrak Beninera itzuli zituzten, eta ondoko urtean Alemaniak zizkion Nigeriari beste hogeitazko obra itzultzen, eta Londreseko Horniman museoak bere aldetik, baita beste 72 objektu Nigeriari ere. Azkenean, hamarkada luzeetan Afrikako herriek galdeturikoa kontuan hartzen zuten ko-

lonia ohiek: "[Arte lapurketaren] ukatze kolonialaren bukaeran" ginen Bénédicte Savoy historialariaren begietan.

Baina, jarrera aldaketa sendi bada ere, itzultze sinbolikotik –eta ez da guti, orain arte ez zelako egin– benetako prozesu adostura arteko bidea luzea izan daiteke oraindik: "Afrikako herriek eta afrikar gazteriak beren ahotsak entzunarazi behar dituzte, ez delako Frantziaren lehentasunetan, eta balitekeelako Frantziako inork ez beregain hartzea betebeharra", dio Zinsouk. 27 obra hortik, 20 hemendik eta 72 handik... kopuru osoari begiraturik barrengarriak direlako zenbaki horiek: "Simple da: Saharaz hegoaldeko ondare kulturalaren %90 Europako bildumetan dute", dio Savoyk. Pentsa, Afrikari lapurturiko 90.000 obra lirateke Frantziako museoetako erreserbetan –horietatik 70.000 soilik Pariseko Quai Branly museoan, eta horien bi herenak 1885-1960 urteetan "jasoak", hots, kolonizazio garaian–. Afrikako koloniak izandako 500.000 obra dira Europa osoko museoetan. Zenbaki horien oinarrian dago Savoyk eta Senegalgo idazle Felwine Sarrek 2018an plazaraturiko ikerketa.

QUAI BRANLY MUSEOAN 70.000 OBJEKTU

Afrikako 90.000 artelan ditu Frantziak, eta horien gehiengo handia Pariseko Quai Branly museoan da: 70.000 –horien bi heren 1885-1960 urteetan "jasoak" dira, hots, kolonizazio garaian lapurturikoak–.



QUAI BRANLY MUSEOA

SARR-SAVOY TXOSTENA ARGIKI MINTZO

Hamarkadetako arazoa eri-klaska batez konponduko balu bezala, diskurtso itxaropentsua luzatu zien Burkina Fasoko hiriburutik 2017an Emmanuel Macron Frantziako presidenteari: "Ezin dut onartu Afrikako hainbat herrialdetako kultur ondarearen zati handi bat Frantzia egoitea. Azalpen historikoak daude, baina ez dago balio duen eta baldintzarik gabeko justifikazio iraunkorrik". Bere estilora, beteko ez zuen promesa luzatu zien burkinafasoarren eta oro har, Afrika kontinentekoei: "Aldi baterako edo behin be-

"Batzuk arrazistak izatea eta pentsatzea afrikarrek ez dakitela ondarea zaintzen, hori europarren hezkuntza arazoa da"

Marie-Cécile Zinsou

tiko berreskuratzeak bost urteko epean betetzea nahi dut". Bost urteak pasa dira.

Haizeak eramandako hitz ederrak, beraz; beste behin, Macronen estilora.

Bizkitartean, esku artean dugu Sarr-Savoy txosten mamitsua, Macronek berak galdetu ziena. Kolonizazio garaian bortizki lapurtu artelanak kontuan hartzen dituzte bi ikerlariak, baita iraganean "prezio apalean" merkatariek, soldaduek, misiolariak zein kolonoek eskuratutakoak. Kolonizazio garaian lapurturikoak baina geroztik artearen merkatuan salerosiak izan diren obrak ere aipatzen dituzte, baina horiek afera konplikatzeko dute, jabetza aldarrikatu dezakeelako diruaren trukean jaso duenak.

Usurbilen euskaraz gara!

Usurbilgo Udala

Joxe Martin Sagardia plaza
943 37 19 51 erregistroa@usurbil.eus
www.usurbil.eus



Usurbilgo Udala



Dena dela, ahoan bilorik gabe mintzo dira Sarr eta Savoy: "Baldintzarik gabeko eta behin betiko itzulera" bideratu behar du Frantziak: "Harreman-etika birpentsatu batean oinarritutako kultur harreman berriak ezartzeko bidea litzateke". Urratsa bideratu ahal izateko "lege moldaketa" eskatzen dute txostenean. 2023an abiatu zuen bidea gobernuak, eta hiru legetatik bi pasa zituen: Bigarren Mundu Gerran juduei lapurturiko ondareei dagokiona eta museoen bildumetan diren giza hondarren itzulerari buruzkoa. Artelanei dagokionez, gibelatu eta aurtengo apirilera izenpetzekoa zuten dekretu bidezko legea baina ez zuten egin; udazkenera atzeratu baina ez zen

gertatu. Gauzapek gabe –eta aipamen gutirekin– segitzen du urte bukaera honetan ere.

Nola ez, aurkako iritziak ondorioztatu ditu Sarr-Savoy txostenak. Tartean, bere esku artean 70.000 objektu dituen Quai Branly museoko zuzendari izandako Stéphane Martinek "museo kontzeptuaren aurkako herra oihu" gisa kalifikatu zuen ikerketa. Argumentuen artean, maiz entzuten da Afrikako herrien azpiegitura eta benetako interes artistiko eskasa. Ez du horrekin bat egiten Zinsouk, eta kutsu arrazista ere ikusten dio ikuspegi horri: "Bere ondarea kudeatzeko gaitasuna du Afrikak ere. (...) Mendebaldeko zenbait jende zabal-

duriko gutxiagotasunaren diskurtsoari ez diogu lekurik utzi behar. Inola ere ez. Batzuk arrazistak izatea eta pentsatzea afrikarrek, eta gure kasuan benindarrek, ez dakitela ondarea zaintzen, hori europarren hezkuntza arazoa da".

1965: "ITZULI IEZAGUZUE ARTE BELTZA"

60 urte beteko ditu 2025ean *Bingo* aldizkarian Paulin Joachim idazle benindarrak idatzitako *Itzuli iezaguzue arte beltza* manifestuak. 1978an, Unescoko zuzendari Amadou-Mahtar M'Bow senegaldarrak ondokoa adierazi zuen: "Arpilatze horiek (batzuk duela mendeak gertaturikoak) pairatu dituzten herriei ez zaizkie bakarrik ordezkazinezko maisulanak ebatsi: memoria lapurtu zaie, lagungarri izanen zitzaiena beren burua hobeto ezagutzeko, baita besteek hobeto ulertzeko ere".

Mendeetan, eta, batez ere kolonizazio garaian lapurturikoa nahiko ez balitz bezala, ebasketa jarrera horrek gaur egun ere segitzen duela dio Philippe Baqué kazetariak, *Un nouvel or noir. Le pillage des objets d'art en Afrique*. [Urre beltz berri bat. Artelanen lapurreta Afrikan] ikerketan. Legeak debekatu arren, eta lapurreten kontrako nazioarteko tresna egonik ere, dioenez, Afrikako obrentzat ez dute balio: "Arte merkatariek eta bildumagileek berdin-berdin segitu dezakete beren negozioa, itxuraz kontzientzia ona atxikita gainera. Ez zaie ezer eskatzen, eta haien negozioak ez dira sekula hain onak izan".

Eta horrela doaz obrak aitzina, denboran eta artearen merkatuan: bidean balio geroz eta gehiago harturik, bere herriaren memoria eta artea berreskuratzen nahiko lituzkeenari ahalmen guti emateaz gain, oztopo berriak gehitzen zaizkiola. ●

KANSALLIS MUSEO



KATAKLE ERREGE-AULKIA BENINERA

1892an lapurturiko objektua itzuli dio Benin herriari Finlandiak. Argazkian, Beningo Kanpo Arazoetako ministroa Finlandiako museoan, errege-aulkiari begira.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com





MONDRAGON

GIZATASUNA
LANEAN

Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza

MONDRAGON EUSKARAREKIN BAT

BAI

AURRERA

BETI

**MONDRAGON eta euskara,
elkarrekin haziz**

1,5 milioiko inbertsioa
Organo gorenak euskaraz
26.500 langile euskara planen bueltan
500 pertsona euskara gaitasuna hobetzen

www.mondragon-corporation.com



Aran Calleja

FILMETAKO MUSIKA EGILEA

“

MUSIKAN, EMAKUMEOK LAN HANDIA EGITEN ARI GARA IKUS GAITZATEN

”

Inguruan dituen emakume sortzaileek halakorik izateak harritu egiten du, baina berak urte askotan izan du iruzurtiaren sindromea. Irauteak erakutsi dio, ordea, gauza asko ondo ere egin dituela. 2021ean Espainiako Estatuko Goya saria irabazi zuen Maite Arroitauregirekin *Akelarre* pelikularen musikagatik.

 ONINTZA ENBEITA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Duela gutxi entzun diogu kantari ezagun bati berak ez duela musikaren barruan emakumeen eta gizonen arteko bereizketarik ikusi.

Ez da musikan bakarrik gertatzen, baina hori horrela ikusten duena gizon bezala dituen pribilegioei begira bizi da. Musika eskoletako edo kontserbatorioetako irakasle eta ikasle gehienak emakumeak dira, baina musikaren beste arlo guztietan, asko kosta zaigu ikusgarriak izatea. Lan handia egiten ari gara ikus gaitzaten. Esate baterako, Zea Maysek bideoa ederra egin du. Sekulako emakume taldea osatu du *Elektrizitatea* abestiaren urteurrena ospatzeko. Hor dauden emakumeak zein baino zein indartsuagoak dira, baina ez badugu indar hori nahita erakusten, ez gaituzte ikusten. Oraindik ere jaialdi askotako karteletan gizonetzkoak dira gehienak edo denak; ez dago orekarik.

Pedagogian, beraz, emakumeak dira gehienak. Ikasketetatik musikari izateko bide horretan katea apurtu egiten da?

Orkestra zuzendarien artean, esate baterako, hamar gizonen emakume bakarra dago. Boterea maneatzea eskatzen duten postuetan, edo ardura gehigarriaren bat dutenetan zein taldeak kudeatu behar direnean, kosta egiten da emakumeak ikustea. Gure gizartearen egiturak zerkusi zuzena du horretan, jakina. Kontziliazioa eta zaintza emakumeekin lotu dira historikoki, eta badirudi, arduraren bat hartzen badugu etxetik kanpo, berez guri omen dagokigun beste lan hori ezingo dugula egin. Horrek inkontzienteki zaildu egiten digu ardurak hartzea, baina epaiaren beldur ere bagara askotan. Agian, behar duguna ez da bakarrik emakumeek halako ardurak hartzea; ondo legoke ar-

dura postuetan dauden gizonen historikoki emakumeoi egotzi zaizkigun lan horiek egiteko aurrerapausoa ematea. Horrek oreka bat izaten lagun dezake.

Lehengoan, esate baterako, Albert Serra zuzendaria entzun nuen esanez bere filmetako muntatzaileei inplikazio osoa eskatzen diela, eta seme-alabak dituztela esaten badiote, ez dituela bere lanean nahi. Litekeena da zuzendaria bere pertsonaia istrioniko horretatik egotea hala-koak esaten, baina bizitza lana baino askoz gehiago da. Ni ere obsesionatzen naiz nire lanarekin. Azken batean, gauza bat asko gustatzen zaizunean, obsesio puntu horretan aurkitzen duzu bidea, baina zure inguruan jendea dago. Gizonen irakatsi zaie beste guztia uztea dela gauzak egiteko modu bakarra, baina emakumeen kasuan, zigortu egiten gaituzte halako ardurak hartzen baditugu.



Aran Calleja

BILBO, 1977



“Umetan familian elkartzen ginen Alfred Hitchcocken ordua ikustera. Gero bere filmetan erabiliko zituen eszenak eta berezitasunak kontatzen zituen. Musika hura barruraino sartuta neukan, oraindik ere gogoratzen dut”. Musika ahapetik kantatu digu irribarrez, eta pasioz. “Beste planeta batera eramaten ninduen”. Ez omen zuen filmetarako musika egitearekin ametsik egin Aran Callejak, baina Arte Ederrek eta bibolinak haraino eramanez dute.

Agian, jenioaren mitoak eragina izango du. Hau da, jenioak hala dira jenio diren gai horretan, eta beste guztian desastreak izatea barkatu egiten zaie.

Jakina! Figura hori erromantizatuta dago: jenioak direnez gauza konkretu batean, beste arloetan edozer egin da ere, barkatu egiten zaie. Bada, nire ustez, izan zaitezke jenioa fisikan edo sukaldean edo musikan, baina ez badaukazu bizitzarako beste gaitasunik, agian, hain jenioa ere ez zara. Artista izatea zerbait lurtarragoa da. Zergatik naiz ni beste batzuk baino artista-goa? Edonor izan daiteke artista berez, baina gutxiak daukagu sortzen dugun horretatik bizitzeko pribilegioa. Nire kasuan, Arte Ederrak ikasi nituen, eta nire inguruak onartu egin du egiten joan naizen bidea. Hasieran banuen mamu bat nire gainean: ia ezinezkoa da arteetatik bizitzea. Nire familiak ez zuen uste artista izatera iritsiko nintzenik, baina gertatzen joan diren gauzak onartu egin dituzte, eta nik uste dut jende batek izan ez duen pribilegioa izan dudala zentzu horretan.

Galdetu duzu ea zergatik zaren beste batzuk baino artistagoa. Gogoratu naiz, Bizkaiko Emakume Sortzaileen Topaketetan mahai inguruan izan ginela eta iruzurtiaren sindromeaz jardun zinen. Harritu egin ninduen.

Emakume sortzaile gehienok izan dugu edo dugu sindrome hori, baina harritu egiten gaitu gure parekoek izateak. Sistemak erakutsi digu ez ditugula gertatzen zaizkigun gauza onak merezi. Zuretzat aurreikusten zuten bidetik ateratzen bazara, eta gauzak ondo ateratzen bazaizkizu, kasualitatea dela esango dizute, eta ondo ateratzen jarraitzen badute, zortea. Kontua da ez dela beti zorte kontua.

Lanaren emaitza da gehienetan.

Lan asko egin behar da, baina lan hori bideratzen ere jakin egin behar da. Jende on asko dago bere gaitasunak gartzeko aukerarik ematen ez dion inguru batean harrapatuta. Dena den, emakumeoi gauza asko eskatzen zaizkigu gure lana ondo egiteaz gain. Egoteko modua zaindu egin behar dugu, ezin dugu nabarmenak izan. Zenbat aldiz ikusi ditugu emakumeak hunkituta sari bat jasotzen? Nahiko nituzke gizonak ere ikusi hitzik asmatu ezinda, baina

publikoki apurtzeko beldurra daukate. Guk erresilientzia hori landu dugu, eta badakigu hausten bagara ere, zutituko garela. Beraz argi dago sistema heteropatriarkala ez dela haientzat ere ona. Gurekin gogorragoa da sistema, baina beti gogorrarena egin beharra ere, ez nuke nahi. Gero, rol horietatik sortzen dira patroiz sozialak.

Etorkizunean mahai inguruetara edo hitzaldietara joango banintz, nire lanaz hitz egin nahi nuke: erabiltzen ditudan teknikez... Momentuz, ordea, etengabe ari gara esaten zenbat kosta zaigun hemen egotea, eta beharrezkoa da esperientzia horiek mahai gainean jartzea.

Musikaren barruan, zinemako musika sortzen duzu zuk. Arrazoi bereziren bat dago?

Ibilian egin dudana bidea da. Umeak ginenean, etxean telebista eta urrutiko agente bakarra zeuden garaian, familia osoa elkartzen ginen filmak ikustera. Zinemako musika, niretzat, konpartitutako une horiek eta fantasia da. Arte Ederrak ikasi nituen nik, baina kontserbatorioan ere banenbilen eta bibolina jotzen nuen. Ikus-entzunezkoetan sartu nintzen berezitasun moduan, eta bide biak nahastu ziren. Garai hartan filmetako soinu banden diskoak erosten nituen, eta berriz hasi nintzen filmak ikusten. Fakultatean laburren bat edo bideoren bat egiten genuenean, musika nire kontu uzten zuten, eta han ezagutu nuen Borja Kobeaga.

Lehen film laburra egin zuenean, *La primera vez*, musika jar niezaion eskatu zidan. Goxotasun handiz kontatutako historia zen, Maribi Bilbao zen protagonista eta asko ikusi zen. Bibolina hartu nuen, eta tango bat konposatu nuen neuk nahi izan nuen moduan: kontrapuntuaren ikuspegitik ondo edo gaizki dagoen begiratu gabe. Hori bai, maitasun eta errespetu handiz. Lau ahotsak neuk grabatu nituen, eta musika pieza egin ondoren hasi ziren laburraren grabaketak. Maribi Bilbaok tango hura jartzeko eskatzen omen zuen grabaketak hasi orduko, eta oso leku politera iritsi nintzen pieza horrekin. Nik ez nuen umetan esaten filmetarako musika egingo nuenik, baina labor horrek bide bat ireki zidan.

Pentsatzen dut hortik aurrera enkarguak iritsiko zitzaizkizula. Asko ikusi zen labor hori, eta deiak



jaso nituen, baina oso iruzurti sentitzen nintzen ez nuela-ko konposiziorik ikasi. Nik bibolina eta armonia ikasi nituen eta kontrapuntua ikasten hasi arren, ez nuen amaitu. Lanean jarraitu nuen, baina irudipena nuen halako batean harrapatu egingo nindutela, eta norbaitek esango zidala ea zer demontre egingen nuen lan honetan. Ez zen halakorik gertatzen, ordea! Eta lana eskaintzen zidaten, eta gauzak serioago jartzen hasi ziren, eta nik larrialdi handiko momentuak izan nituen. Dena den, ausardia izan dut, eta bidea asmatuz joan naiz ibili ahala. Bibolina erabiltzen nuen gauza guztietarako eta antzerako munduetan nenbilen beti: klasikoa, countrya eta folka. Pentsatzen nuen beste zerbait eskatzen bazidaten ezingo nuela egin.

Bistan dago, ordea, baietz, ahal izan duzula.

Nire kabuz hasi nintzen teknologia ikasten, eta 31 urte nituela, SGAEk Bostoneko Breklee musika eskolara joateko beka deialdia argitaratu zuen. Lagun batek berotu zidan burua aurkezteko eta lehen fasea pasatu egin nuen. Madrilerako joateko deitu zidaten epaile batzuen aurrean pieza bat jotzera. Ez nuen uste hartuko nindutenik, baina joan egin nintzen. Darol Anger izeneko konpositore baten pieza bat prestatu nuen.

“
**Pentsatzen nuen
norbait etorriko
zitzaidala esatera ea
zer demontre egingen
nuen lan honetan”**

Iritsi nintzen Madrilerako eta film bat ematen zuen korridoreetako giroak: jendea eskalak abiadura bizian jotzen ari zen, arpegioak egiten... eta ni han nire country piezarekin. Nik oso gauza berezietan jarri izan nuen arreta beti, eta ez nuen teknikarik. Jo nuen nire pieza hura gizon haien aurrean, eta galdetu zidaten ea zergatik aukeratu nuen Darol Anger. Pentsatu nuen, “kito! Harrapatu naute!”. Eta nik ez nekien orduan, baina Darol Anger Berkleeko irakaslea zen eta grazia handia egin zien nik ez jakiteak.

Hirugarren fasera pasatu ninduten. Hirugarren fase hartan tipo batekin elkarriketa bat izan nuen ingelesez. Ez zidan akademiak ezer galdetu: bizitzaz hitz egin genuen, eta hartu egin ninduten. Ez nintzen, inondik ere, gehien zekiena, ez nintzen han aurkeztu zen onena, baina Bostonera joan nintzen. Zerbaitek klak egin zidan barruan, eta ulertu nuen teknika baino zerbait gehiago behar dela artista izateko. Ezaugarri askoren batura da, zortea ere egongo da tartean, baina norberarengan konfiantza izatea beharrezkoa da. Eta norberarengan konfiantza hartzeko karrera luzea egin behar da.

Batzuetan zuk erabaki gabe gertatzen dira gauzak. Leku batean gustura sentitzen zarelako.

Ni beti fidatu naiz nire instintuarekin, eta eutsi nauten lagunak izan ditut inguruan. Horrek asko lagundu dio nire sortze prozesuari.

Zure sortze prozesuan badago zerbait fisikoa, musika jarri behar diozuna. Ez dirudi prozesu abstraktua denik.

Urteak pasatu dira eta guztia magikoa da oraindik. Gauza askoren batura da: gidoia, zuzendariarekin daukazun konexioa... Zuzendariak erreferentziak ematen dizkizu askotan: berak zer uste duen, ze beste pieza gustatzen zaizkion... Ni hortik hasten naiz filmaren atmosferak izango dituen koloreen bila. Gauzak forma hartzen ari direla ikusten dudanean, zuzendariari ematen diot zirriborroa eta hark esaten dit zer gustatu zaion eta zer ez, eta ni ere ulertzen hasten naiz zer den berak nahi duena. Lana kolektiboa da zentzu horretan.

Zerbait unetan *acting*-a ikusteak laguntzen dizu, baina ni gidoia irakurtzetik hasten naiz. Filma grabatzen hasten direnerako, denbora badago behintzat, zerbait idatzita izatea gustatzen zait. Dena den, irudiak agintzen du, eta ez da erabat sortze prozesu librea. Kasu batzuetan ez egotea erabaki behar duzu. Agian, badago eszena bat musikarik behar ez duena, eta hori onartzen jakin egin behar da.

Irudiak agintzen du. Inoiz ez duzu beldurrik izan zure lana bigarren planoan gelditzeko?

Ez. Film bat puzzle bat bada, musika pieza bat da, eta irudiaren menpean egon behar du. Informazioa gehitzen du, bai; informazio abstraktua agian, baina informazioa. Hala ere, musika bigarren planoan mantentzea ere bada gure lana. Sekuentzia batzuetan musikak protagonismoa du. Esate baterako, orain zinema aretoetan dagoen *Marco* filmean izan ditut halako batzuk. Hala ere, gehien gustatzen zaidana zera da: ikustea nola betetzen dituen musikak narrazioan dagozkion funtzioak han dagoela erabat igarri gabe.

Bide luzea egin duzu. Sariak laguntzen dute?

Ikusgarritasuna ematen dute eta zure buruarengan konfiantza irabazten laguntzen dizute. Edozelan ere, saria irabazi eta gero lanean jarraitu behar duzu. Maite Arroitauregi eta biok Goya irabazi genuen *Akelarre* filmerako egindako lanarekin. Egia da harrezkero lan gehiago egin dudala. Bidean geratu eta arnasa hartzeko aukera eman zidan, baina izan zuen alde txarra ere. Nik ez nuen benetan sinisten sari hori merezi nuenik, eta halako momentuak gozatu ahal izateko, zure buruari eman egin behar diozu merezi duzula sinisteko baimena.

Maite Arroitauregi eta biak

elkarrekin lanean jarraitu duzue?

Kuriosoa da, ze orduan elkartu ginen lanerako lehen aldiz, eta jendeak pentsatzen zuen urteak generamatzala elkarrekin lanean. Harrezkero egin ditugu *Irati*-ren soinu banda, zinemaldiko sintonia eta Eneko Sagardoyren *Betiko Gaua* film laburrerako musika, esate baterako. Paul Urkijoren lan berrian ere ari gara.

Orain halako sari bat jasoz gero, sinetsiko zenuke merezi duzula?

Baietz uste dut.

Bidea egiten ari zara, beraz.

2020tik hona lana egin dut nire buruarekin, eta lana profesionalki. Oso harro nago lau urte hauetan egindakoekin: *Irati*, *Marco*, *Cinco Lobitos*... Orain gertatuko balitz sari bat irabaztea, gozatu egingo nuke, eta eskertu. Nire barruan bizi den ume beldurtia aterako balitz ere, ez nuke ezkutatuko. Erreferenteak garela ulertu behar dugu, bidea egin dugula, esker ona jasotzea ederra dela... Askotan gertatu zaigu emakumeoi gauzak gaizki egingo ditugun beldurrez, egin gabe utzi ditugula, eta geure buruari gauza ez hain onak egiteko aukera ere eman behar diogu.

Fokoetatik urruti ezagutu zintudan: aniztasun funtzionala duten gazteen

audizio bat zen, haien musika terapeuta zinen.

Kontzertu horietan negarrari eusteko lanak izaten ditut. Musikoterapiari esker gauza ez-perfektuen balioa ikasi dut. Orain ez zait perfekzioa interesatzen. Nire buruari asko eskatu izan diot beti, eta gero, gazte haiekin jartzen naiz Sergio Dalma, Rocio Jurado, Shakira eta haiei gustatzen zaizkien kantuak kantatzen eta lur hartzen dut. Ez daude ondo edo gaizki ari diren begira: libre kantatzen dute. Horrek indar izugarria dauka! Purua da! Haiek irakatsi didate burutik irten eta bihotzera joaten.

Onartzen dut begiratzen nizula eta pentsatzen nuela "neska honek Goya bat dauka, eta hemen dabil!"

Erritualaren parterik garrantzitsuena haien ilusioa da, eta egun hartan zu etortzeak ere asko hunkitu ninduen. Geuk gonbidatu zintugun, eta etorri egin zinen. Goya sariak denborarekin hartu du zentzua; esate baterako, musika eskolara eramateko eskatu zidatenean edo nire gurasoek auzora eraman zutenean. Kontua da nik musikoterapia egiten dudanean zinema oso urrun dagoela, baina zinema egiten dudanean musikoterapia eta adierazpen libre horiek guztiak hor daude. ●

**Euskara.
Kultura.
Mundura.**

ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

f t y i n
www.etxepare.eus



Trumpkonomia

AEBetako agintaldi berriak ekonomiaren esparruan ekarriko duena zehaztea ez da lan erraza. Estrategia ekonomiko berriaren ardatza liberalismoaren eta kanpo sektorerako protekzionismoaren arteko uztarketa bitxia izango da. AEBetan aldian-aldian halakorik gertatu den arren, oraingoan bi ildo ekonomiko kontrajarri horiek muturrera eramateko arriskua dago.

Ikusteko dago gobernu berriak ortodoxia liberala noraino eramango duen. 2025ean proiektu ultrakontserbadorea guztiz martxan jartzea ezinezkoa izango da. Baina bere lerro nagusiak mantenduko dira gutxienez ondoko lerroetan: gastu sozialaren eta administratiboaren murrizketan, migrazioaren aurkako politikan, erregai fosilak indartzeko neurrietan, zergen beherakadan eta protekzionismoan.

Bidenen gobernuak uzten duen egoera makroekonomikoa balekoa da enplegua, hazkundera eta inflazio-tasaren kasuan, baina makurra da kontu publikoei dagokienean. Izan ere, Munduko Bankuaren arabera, AEBetako zor publikoa inoiz izan duten altuenetakoa da eta aurrekontu defizitaren nahiz kanpo zorraren datuak ez dira hobekak.

Arazoa da AEBetako presio fiskala oso apala dela, Europako Batasuneko herrialde gehienek azpitik dago. Gainera, Trumpek zerga jaitsiera garrantzitsua iragarri du. Ekonomia berdeari emandako dirulaguntzen gutxitzeak eta aduana zergen diru sarrerek kitatuko

Bidenen gobernuak uzten duen egoera makroekonomikoa balekoa da enplegua, hazkundera eta inflazio-tasaren kasuan, baina makurra da kontu publikoei dagokienean

lukete zergen jaitsierak ekarritako diru sarrera murrizketa hori, Trumpen esanetan. Baina zalantzarik ez da aurrekontu defizitaren eta zorraren handitzea ekarriko duela zergen beherakadak. Faktore batek leuntzen du AEBetako zor estrukturalaren auzia, dolarrak nazioartean duen posizio hegemonikoak, hain zuzen. BRICS+ taldearen helburuetako bat da dolarraren hegemonia horri aurre egitea. Epe ertainean halakorik gertatuko balitz, AEBek ezingo lukete bere horretan mantendu mundu mailan duen posizio hartzekodun ikaragarria.

Nolanahi den, AEBetako ekonomiak oso ahaltzua izaten jarraitzen du, puntako enpresa teknologikoak –militarrak barne– eta finantza erakunde boteretsuak baititu. Adibidez, AEBetako enpresa erraldoiek adimen artifizialaren balio kate osoaren gaineko kontrola dute eta bertako enpresa transnazionalen moz-



MIKEL ZUBANO
EKONOMIALARIA

kinen herena baino gehiago erbestean lortzen dute. AEBek munduko ekonomiaren gainean duten hegemonia ez da bat-batean ahituko, baina Txinaren teknologi dinamismo bizkorrak itzala egiten dio. Horrek azaltzen du, hein batean behintzat, Trumpen lerrotatze protekzionista sutsua.


Aipagarria da Elon Muskek ere horren aldeko interes pertsonala duela. Gobernu Efizientziarako Saileko buru izendatu berriaren negozioen errentagarritasuna hobetzeko, tresna eraginkorra da babesa indartzea. Berea den Tesla kotxeari Txinak egiten dion lehia zuzena saihestea eragingo luke neurri horrek. Beraz, azken hamarkadetako merkataritzaren liberalizazioaren aldeari errematea emanda multilateralismoaren garaia atzean uzteko asmoa du Trumpek. *Amerika first* leloa nazioarteko jarrera unilateralekin identifikatzen da.

Klima larrialdiaren ukapena da gobernu berriaren beste ezaugarri bat. Lehen agintaldian egin zuen bezala Pariseko akordioa alboratzeko asmoa azaldu du. Bide orri argia du nazioarteko erakunde eta foro multilateralak uzteko edota oztopatzeke. II. Mundu Gerra osteko Bretton Woodseko Mendebaldeko esparru erregulatuak eraisteko arriskua bistakoa da. Orain arteko eraikuntza multilateral oso kritikagarria izan arren, kudeaketa partekaturako instituzioen eta foro galerak unilateralismo orokortua eta gatazka gorakorra ekarriko dituzte nazioarteko ekonomian. ●

Sorginen lurra



CIRA CRESPO
HISTORIALARIA



PAULA ESTÉVEZ

Esatzen da Simone de Beauvoir-ek idatzi zuela zapaltzailea ez litzatekeela hain indartsua izango zapalduaren lerroetan konplizerik ez balu. Niri oso normala iruditzen zait... zer nahi duzue, ba? Zapalduta zaude-nean, ulergarria ere bada zure kondizio hori hobetu nahi izatea, eta horretarako oso erabilgarria da zapaltzaileari erosotasuna eskaintzea. Horretarako, adibidez, aukera bat izan liteke zapaltzaileak zure okertasunaz dituen susmoak eta aurreiritziak konfirmatzea. Zutaz dituen susmoak zuzenak direla ikusteak zapaltzailearen kontzientziari atsegina emango dio.

Komenigarria da zapaltzailearen alderdian dagoen jende zuzenbidezale guztiari bide onetik doazela baieztatzea, hau da, hobe jende horri onartu zapalduak hobeto daudela zapaltzaileen kontrolpean eta agindupean, kontrolpe eta agindupetik kanpo baino. Imajinatu bestela zein gogorra izango litzatekeen beraientzat herri edo giza talde hartako jendea eurak adinakoa dela pentsatu beharrean balira, eurak bezain ahulak, indartsuak, korapilatsuak, alaiak, hain azkarrak, tontoak, onak, edota gaiztoak. Zapaldu horiek beraiek bezain jende ka-

paza direla, parekoak... hori pentsatuz bizi beharra ez da erraza.

Lasaiago daude han bizi den norbaitek, edo talde horretako norbaitek, okerkeria susmoak konfirmatzen dizkionean. Leku askotan dauzkagu horri buruzko adibideak, baita oso gertu ere. Badira euskaldunak, katalanak, eta abar, espainiarrei baieztatzen dietenak beren herriak okerragoak, atzeratuagoak, itxiagoak, kontserbadoreagoak direla eta, azken batean, Espainiaren kontrolpean hobeto daudela. Duela gutxi, aldizkari zaharrak irakurtzen ari nintzela, horren adibide paradigmatico bat aurkitu nuen. 1911ko abenduaren 7an, *Nuevo Mundo* aldizkari madrildarrean, Luis Olariaga gasteiztarrek *Tierra de Brujas* (Sorginen lurra) izeneko artikulu idatzi zuen.

Zuek ez duzue nire lurralde barbaroa ikusi (...). Han, arratsaldean, argia itzaltzen denean, itxura betiluna eta barnera bildutakoa hartzen dute. Eta elurrak misteriozko tulekin babesten ditu. Ordu horretan, atso zahar-zaharren kontseilariak diotenez, antzinako harkaitz haietatik sorgin miragarriek jauzi egiten zuten. Eta zergatik ez dute ba, oraindik, saltoka jarraituko? Ez al dute izugarrikeriazko

mito horiek nire lurra beldurtzen jarraitu behar? Ongi esana dago zientziak fantasiari galga jarri diola, noski. Baina nire lurralde hartan ez. Zoazte beren haitzarreetan barrena sigi-saga. Ikusiko duzue.

Ikusiko duzue bizitza tristeago hura, pobreago eta itzalez beteago hura. Ogi gutxi eta eskolarik ez dutenak bizi dira, mendien isurialdeetan eskegitako etxola bakartietan sartuta. Eta esperantzatzat txaparroen artean habia egindako kanposantu bat (...). Bizitza enigma fantastiko eta izugarria da haientzat. Ikusten dituzte mendiak, itsasoak, uholdeak, zerruak, ekaitzak, heriotza... eta ez dakite zer esan nahi duten, eta beldurtu egiten dira. (...) Horrela jaiotzen dira sorginen buruetan, horrela jaiotzen dira, horrela jaiotzen dira. (...) Espiritu landugabea, espiritu mitologikoa, espiritu txikia.

Gure Luis gasteiztar hori bezalako jende asko dago oraindik. Normala ere bada, nork nahi du zapalduen parte izan? Batez ere, bandoz aldatzea hain erraza denean... aski da artikulu bat idaztea, Madrilen daukazun afari hartan susmoak berrestea, aski da hizkuntzaz aldatzea, eta historia eta markoak inoiz existitu ez den sorgin lurraren gainean eraikitzea. ●

Valentziako ilargia



MIKEL OTERO
LEGE BILTZARKIDEA

Duela gutxi, larrialdi klimatikoaren zertan zetzan galderaren aurrean, zientzialari batek erantzun bikain hau eman zuen: “Begira, larrialdi klimatiko hau da, zure mugikorrean muturreko fenomeno meteorologikoei loturiko gero eta bideo gehiago ikusten dituzu, eta konfaturatzen zarenerako zu zeu zara gertakari horietako bat grabatzen ari zarena”. Lehorteak, suteak, uholdeak. Herenegun Indonesia edo Pakistan, atzo Kanada edo Australia, gaur Mediterraneo, bihar...

Ezin esan alarma gorriak piztuak ez zeudenik. Urrutira joan gabe, 2023ko *Klimaren egoera* txostenean, komunitate zientifikoak zioen: “Denbora amaitu da, iragarpenen agerpena ikusten ari gara, eta sufrimenduzko eszena larriak gertatzen ari dira. Sartu garen dimentsio ezezagunaren beldur gara. Laster Paris-ko Akordioako 1,5 graduko helburuaren porrotaren lekuko izango gara”. Azken hori, esan eta gertatu. 2024a izango da 1,5 graduko berotze langa urte oso batez gaingaitzen den lehena.

Ondorioen aroan gaudela jakite hutsak, alabaina, ez gaitu prestatzen datorrenarako, zientifikoki egia denak ez baitu efektu politiko automatikorik. Horregatik, egunotan entzuten ari garen “nik esan nuen”, “nik abisatu nuen”, eta inplizituki doan “inork ez zidan kasurik

egin” horiek ez dute ekarpen handiegirik egiten, esaten duenaren egoa puzteaz haratago. Aitzitik, larrialdi klimatikoari aurre egiteak neurri anitz eta, batzuetan, deserosoak eskatzen dituen neurrian, borroka politiko eta kultural asko gertatu eta irabazi behar dira.

Eta ez da erraza neurrien inguruko hierarkia egitea. Zein neurri hartu eta zein ordenetan. Gero eta gutxiago fidatzen naiz arazo konplexuak sinplifikatzeko joerarekin, “hau da egin behar dena lehendabizi” esaten duenarekin. Dagoeneko badakigu gauza asko egin ezean ez dugula arrakastarik izango. Prebentzioa, arintzea (isurien murrizketa) eta ondorioei egokitzapena, dena batera. Alerta sistemak erabili eta barneratu ezean, prebentzio kultura hedatu, larrialdien koordinazioa hobetu, lurralde eta hiri plangintza berrikusi, fosilak erretzeari utzi, berriztagarrietara trantsizioa egin, gertuko elikadura sustatu, garraio publikora jauzi egin, azpiegitura politika datorrenera egokitu edota kapitalaren logika hedakorrekin amaitu ezean, ez dugu arrakastarik izango. Dena, denok eta dena aldi berean. Neurri bakar bat mespretxatu gabe. Eta, batez ere, neurri hobeak egon daitezkeen aitzakia ez erabilita eraginkorrak diren neurriak baztertze. ●

Pertseberantziaz



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Bihotzean ditudan oroitzapenik politenetakoak dira. Euskal Filologia egiten ari nintzen garai hartan, eta Arbizuko elkarte batera joan ginen Ruper Ordorikaren kontzertu batera. Han zeuden Rikardo Arregi Diaz de Heredia eta Juanjo Olasagarre. Ez nintzen Arregiri esatera ausartu motxilan neukala *Hari hauskorak* liburua, ikaskide batek Altsasun bertan erosi eta oparitutakoa. Liburu ona zela esan zidan eman zidanean. Liburu onak dira Arregirenak, denak. Izugarritzko kultur mugimendua zegoen Arbizun urte haietan. Ez naiz akordatzen lehenago edo geroago izan zen, baina Bernardo Atxagak hitzaldia eman zuen

herriaren etxean. Euskadi saria jaso zuen egun hartan eta zuzenean iritsi zen. *Gartziaren* testuak bidaltzeko aholkatu zidan. Uste dut idatzi nituela, eta bidali ere bai, baina ez ziren argitaratu. Hala ere, idazten jarraitu nuen. Lerroak idazten ari naiz Miren Agur Meaberen eta Yolanda Castañoren arteko solasaldiaren biharamunean. Meabek pertseberantziaz hitz egiten zuen, irauteaz, jarraitzeaz. Hori dela bidea azpimarratu zuen. Eta nago ez dela bakarrik literaturarako aholku ona. Bizitzarako ere ona dela. Beharbada horregatik gordetzen ditut Gartziarenaren ale zaharrak. Izan zirelako pizgarri bat niretako. ●

Gogoan ditut



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

2006. urtean, Baltasar Garzonek, orduko *epaile izarrak*, errebelazio moduko bat izan zuen, eta jardunbide bat idatzi zuen, terrorismoagatik inkomunikatutako atxilotuen eskubiak bermatzeko. Epaile berak ehunka atxilotu inkomunikatu pasatzen ikusi zituen bere aretotik, horietako asko tratu txarren zantzu nabariek, baina ez zuen ezertxo ere egin.

Are gehiago, Garzonen protokoloa ez zuten praktikara eraman: galdeketa ez ziren bideoan grabatu, familiei ez zieten atxilotuak non zeuden jakinarazi, eta inoiz epailei atxiloaldian izandako gorabehera baten berri ematen bazieten, informazio horrek ez zuen inoiz aldaketarik ekarri inkomunikazioan.

Auzitegi Nazionaleko areto batzuetan soilik onartu zuten atxilotuari konfiantzazko mediku batek osasun-azterketa egitea, baina epaitegiko mediku forntseak lagunduta. Hori dela-eta, Jaiki Hadi elkarteko mediku batzuk horretan aritu ginen.

Oroitzapen ezabaezina dut atxilotze zentro makur haietatik irteteen sentitzen nuen tristuraz, ezintasun eta atsekabe sentsazio sakonaz. Izan ere, ate

Ez da borondaterik izan Poliziaren gehiegikeriak aitortzeko. Torturak agindu, babestu, legitimatu eta gauzatu zituztenek estatu-arrazoian jarraitzen dute

haiek zeharkatzean, banekien pertsona jipoituak uzten nituela barruan. Eta zoritxarrez, oso laguntza eskasa eman ahal izan genien, zeren, egia esan, guk egindako txostenak epaitegiko paperontzira botatzen zituzten. Esan gabe doa torturen biktimen sufrimendua bakar-dade absolutuaren isla dela; torturatzailer horien esku sentitzen baitute gizaki gisa inolako baliorik ez dutela, alegia, ez direla inor eta ez direla ezer ere.

Urte batzuk geroago, 2016an, legebiltzarrean eraturako Polizia Gehiegikerien Balorazio Batzordeak biktimen

inventario bat hasi zuen. Orduan sentituen, eta berretsi dut orain, inoiz ez dela borondaterik izan Poliziaren gehiegikeriak aitortzeko. Torturak agindu, babestu, legitimatu eta gauzatu zituztenek estatu-arrazoian jarraitzen dute, beren boterea legitimatzeko estrategian. Joan den asteko adierazpenak ikustea besterik ez dago.

Orain dela aste batzuk, batzordeko partaideek ohartarazi zuten ez zutela jarraituko lanarekin, baliabide faltagatik. Txostenean, aitortutako 93 pertsona bildu dituzte, eta hor bukatzen da ikerketa... Agian, kolektiboki onargarriak diren kontakizun batzuetan oinarritutako identitatea sortuz joan gara, oroitzapen txarrak eta erabaki kaskarrak saihesteko.

Baina uste dut batzuk ez gaudela inongo historian islaturik, ezta inongo kontakizunetan ere. Ematen du ez girela existitu, besterik gabe, une batean horrela izan behar zuela erabaki zutelako. Eta, hala ere, gogoan ditut torturaren krudelkeria jasaten ikusi nituen pertsona guztiak, eta bizi naizen artean, nigan, bederen, inpunitatearen aurkako babeslekua izango dute. ●

Euskaraz hezi, euskaraz bizi!





Oliv1948

Boutique Hotela



Kalezar, 83 - 20170 **USURBIL** (Gipuzkoa)
T.: (+34) **943 060 434** - M.: (+34) **654 625 025**
www.olivi1948.com · reservas@olivi1948.com



Oliv1948

2024ko
GASTRONOMIKA SARIA
URTEKO ERRETEGIARI



Oliv1948

Erretegia

SAIZAR Baserria, Kalezar, 39 - 20170 **USURBIL** (Gipuzkoa)
T.: (+34) **943 788 448**
www.asadorolivi.com · reservas@asadorolivi.com



Kosmetikoak Sendabelarrekin

Nola garbitu eta zaindu, gorputza eta lurra kutsatu gabe?

Azala ez da azaleko gaia, kanpoarekiko muga eta gure buruaren babesba baizik. Ordea, kosmetiko industrialak erabiliz gero, toxiko kimikoak barneratzen ditu gure gorputzak azaletik, eta dutxako zulotik behera joaten direnean, ura eta Lurra ere kutsatzen ditugu egunero. Eredu kutsatzaile horretatik ateratzeko

tresnak ematen ditu Garbiñe Larreak *Kosmetikoak Sendabelarrekin* liburuan: 67 formula azaldu ditu, urteetan eman dituen ikastaroetan garatu eta frogan jarri dituenak. Beraz, adi: liburu hau ez da gorputz batzuentzat soilik; bizarduna izan edo ez, pinpirina izan edo ez, dutxatzen bazara, zuretzat ere bada.

 EITXU EIZAGIRRE KEREJETA  IBAI ARRIETA / ARGIA CC BY-SA-NC-ND

Zenbat kosmetiko erabiltzen dituzu azala, ilea eta gorputzeko atalak garbitzeko, zaintzeko eta lurrintzeko? Gutxien erabiltzen dituenak dutxako xaboia, xanpua eta hortzetako oreka erabiliko ditu, eta askok krema hidratatzailea, desodorantea eta kolonia (tarteka bada ere) ere bai. Bizardunak aitzurra egin aurretik aparra eta ondoren leungarria maiz igurtziko ditu. Bada, oinarritzko garbitasuna eta mantenua egiteko erabiltzen ditugun produktuetan, bularreko minbiziarekin lotutako 921 osagai aurkitu ditu Jennifer E. Kay buru duen eta AEBn egin den ikerlanak, zeina 2024ko urtarrilean *Environmental Health Perspectives* aldizkari zientifikoan argitaratu den. Substantzia horien artean, besteak beste parabenoak eta ftalatoak daude, eta horiek disruptore endokrinoak dira, sistema hormonalari eragiten diotenak.

Hortik aurrera zenbat eta produktu gehiago erabili, esaterako, ezpainetakoak, begi-ondoetarako kremak, ileari forma emateko eta finkatzeko produktuak, makillajea... gehitzen eta nahasten goaz osagai toxikoak, koktel efektuak eraginez. Nicolas Oleak bikain azaltzen du zer den koktel efektua. Bera Granadako Unibertsitateko ikerlari eta katedraduna da Erradiologia eta Medikuntza Fisikoan, eta mundu mailako erreferentzia da disruptore endokrinoen eta minbizien artean dauden loturak arakatzeko. Ekologistak Martxanek egindako elkarrizketan honela azaldu du Oleak: "Disruptore endokrinoak hormonak aztoratzen dituzten kutsatzaile kimikoak dira. Kutsatzaile kimiko horietako batzuek estrogeno hormona sorrarazten dute eta hori lotua dago bularreko minbiziarekin. Baina zailtasunak izan ditugu kutsatzaile kimiko horiekiko esposizioa

minbiziarekin lotzeko, izan ere, herritar arruntak esposizio hori dosi txikitik jasotzen du eta kutsatzaile kimiko horietako bakoitza bakarka aztertuta badirudi ez duela behar besteko presentziarik ondorio toxikorik izateko. Baina arazoa da konposatu mordoak dagoela, modu konbinatuan eragiten dutenak. Ikuspegi horretatik ikertzen denean, ikusi dugu zer lotura dagoen disruptore endokrinoak diren kutsatzaile horien eta minbizien artean. Ez da kimiko bakarraren eragina, baizik eta dosi txikietan dauden horiek denek batera sortzen duten efektu konbinatuak handitzen du tumore gaiztoak garatzeko arriskua".

Garbiñe Larreak *Kosmetikoak Sendabelarrekin* liburuan azaldu duenez, egunero batez beste 100 produktu toxikoko koktela zerbitzatzen diogu gorputzari, kosmetikotan. Genero sistemak badu bere eragina gai honetan ere, eta ema-



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

kumeeek batez beste egunean 185 osagai toxikorekin osatzen dute koktela eta gizonek 85ekin. Baina datu horiek duela hamar urteko ikerketa batekoak dira, "eta egun gehiago dira", Larreak ohartarazi duenez.

"Merkezurrekoak erabiltzen dituzten arazoa da. Nik marka ezagunak erabiltzen ditut", pentsa dezake irakurleren batek. 2021ean Danimarkako Kontsumitzaileen Kontseiluak egin zuen ikerketak 39 produktu aztertu zituen eta erakutsi zuen nazioarteko marka ezagunek substantzia kimiko alergia-eragileak eta disruptore endokrinoak erabiltzen dituztela. Aztertutako 39 produktu horietan 63 kutsatzaile aurkitu zituzten eta kutsatzaile horietatik 23 ziren disruptore endokrino izateko susmopean daudenak. Disrupzio horrekin lotzen dira, besteak beste, ugalkortasunaren galera eta fetuei kalte egitea, 2 motako diabetesa garatzea, obesitatea eta hormonei lotutako organoetan minbizia garatzea. Gainera, horietatik hiru produktuk Europar ilegalek diren osagaiak zituzten.

"Momentu honetan ez daukagu eguneroko egiten dugun ekintza xume horrek



Kosmetikoak Sendabelarrekin

Garbiñe Larreak ARGIArekin
ateratako liburu berria

Argazkiak:
Ibai Arrieta

Azala eta maketazioa:
Maitane Gartzandia

204 orrialde

azoka.argia.eus-en salgai
28 €

sorrarazten digun kutsadura kimikoaren kontzientziarik. Aurten, Endokrinologiako Nazioarteko Elkarteak ohartarazi du zertaraino ari diren osagai sintetiko hauek gure sistema hormonalak hackeatzen, eta bereziki emakumeon kasuan, gure estrogenoa imitatuta, hau da, kanpo-estrogeno bezala barruan ze lan txar ari diren egiten", ohartarazi du Larreak. Arazo horietako batzuk aurrez aurre ikusi izan ditu bere naturopatia kontsultan: "Urte luzez aritu naiz kontsultako lanean, eta azaleko gaitzak zituen jende asko ezagutu dut. Gaitz horiek askotan ez ziren berezkoak edo naturalak, kosmetiko industrialek eragindakoak ziren. Niretzat deigarria zen ikustea, haur txikientzat egiten diren hainbat produktu zirela denetan okerrenak! Eta horien pilaketa zela urtebeterako dermatitisa eragiten zuena. Den-denak erabiltzeari utzi astebetean eta askotan arazoari buelta ematen zitzaien". Aipatutako AEBko ikerketak ere halaxe berretsi du: minbizia eragiten duten 921 substantzia horietako asko ohikoak dira umeentzako lozio eta xanpuetan, zer esanik ez zorrien aurka-

ko botiketan, zeinetan *malation* pestizida ere aurkitu duten.

Egun kontzientziarik ez dugun arren, kosmetikoak "etorkizuneko amiantoa" izango direla iragarri zuen Larreak 2017an, Onintza Irureta ARGIAko kazetariak eguzkitako kremen inguruan idatzi zuen erreportajerako egin zion elkarrizketan. "Orduan albisteak izan zen eguzkitako zenbait krema debekatu egin zituztela munduko hainbat herrialdetan, krema horiek korala suntsitzen ari zirelako. Eta korala suntsitzen badu, nola ematen dugu lasai-lasai azalean? Zer uste dugu, guri ez digula inpaktu txarrik eragingo?". Kosmetikoek bi bider kutsatzen gaituztela nabarmendu du: "Kosmetikoak dutxan edo arraskan erabiltzen ditugunean, ura kutsatzen dugu eta estolderian barrena doan ur horrekin Lurra zikintzen ari gara eta kutsatutako Lur horrek kutsatzen gaitu bueltan berriro gu. Ziklo hori apurtu beharra dago". Horretan laguntzen du, besteak beste, *Kosmetikoak Sendabelarrekin* liburuak.

EDERTASUNARI GORAZARRE, BAINA ARAUARI BARRE

Kosmetikoen mundua edertasunarekin lotu ohi dugu. Larreak edertasunaren gaiari adarretatik heldu dio eta kokapen honetatik idatzi du liburua: "Hitzaurrean jarri dut Susan Sontang-en aipu hau: 'Ederra izatea ez dago gaizki, gaizki



dagoena ederra izateko obligazioa da'. Gure hautua izan da ederra izateko obligazio hori liburuan ez adieraztea". Hasieratik oso argi izan du ez zuela argazkitan pertsonarik agertu nahi: "liburuan ez genuelako pertsonen edertasuna adierazi nahi. Egungo kosmetika ereduak, bai industrialean baina baita 'naturalean' ere, pertsonen edertasuna erabiltzen da justifikatzeko zertaraino den ona produktua. Aldiz, guretzat edertasuna balio bat da, baina beste elementu batzuetan dago: norberak kosmetikoak egiteko prozesua bera da ederra, guk egin ditzakegun produktu horiek dira ederrak, eta

horiek egiteko erabiltzen ditugun landareak dira ederrak. Horretan jarri dugu edertasunaren fokua eta ez produktu horiek gorputzean emanda lortu dezakegun ondorioetan, iruditzen zaigulako saldu nahi diguten edertasunaren kanon hau iragankorra dela, zaila dela horri eustea eta horren atzean badagoela halako diktadura moduko bat, pertsonen aniztasuna errespetatzen ez duena, eta zahartzaroarekiko halako fobia bat duena, argazkietan zimurrak ezabatu behar izatera derrigortuko gintuzkeena...".

Edertasuna kanon estetikitik askatu izanaren ondorioz, liburuan ez dugu

PFAS substantziak kosmetikoetan eta uretan



ENVIRON. SCI. TECHNOL. LETT. 2021, 8, 7, 538-544

2021ean AEBetako Notre Dame unibertsitateko Graham Peaslee fisika irakaslea buru zuen taldeak AEB eta Kanadako 200 kosmetiko aztertu zituen eta emaitzak *Environmental Science and Technology Letter* aldizkarian argitaratu zituzten. Horien arabera, PFAS substantziak -garai batean sukaldeko tresna "antiadherenteetan" zegoena- egoteko arrisku handia zegoen begietarako eta baserako produktuen %56an, ezpainetarako produktuen %48an eta maskaren %47an.

Produktu horietatik 39k PFAS ezberdinak zituzten pilatuta, 4 eta 13 artean, baina

horietatik bakarrak adierazi zuen etiketan PFAS zeramala osagaien artean.

Peasleek honela azaldu du irudiak erakusten duena: "Batetik, norbanakoen arriskua dago: begi eta aho inguruan ematen diren produktu hauek xurgatu egin ditzake gorputzak azalaren, malko-bideen, arnasaren eta irenstearen bidez. PFAS substantzia kimiko iraunkorra da: odolera iristen denean, hor geratzen da eta metatu egiten da. Baina bada arrisku gehigarri bat, ingurumena kutsatzea produktu hauek sortu eta deusezterakoan, eta horrek askoz jende gehiagori eragin ahal dio".



Nafarroako izpiliku soroa

Ederra bioaniztasuna denean

Kosmetikoak *Sendabelarrekin* liburuan agertzen den Nafarroako izpiliku soroa aspalditik zuen begiz joa Garbiñe Larreak, "izpilikua kosmetikan asko erabiltzen den irudi bat delako, eta egun berau lantzen duten nekazariak egoera zaila bizi dutelako". Ekologikoak diren produktuak dira azalarentzat osasuntsuak diren bakarrak, Larreak azaldu duenez: "Halako landaketa handi bat ekologikoan egiten ez bada, hau da, fumigatuta baldin badago belar txarrak kentzeko eta ongarriak emateko, hori destilatzen denean, olio esentzialak darama landareari botatako agrotokoa. Etxean olio esentzial horrekin ari bazara, industriak egiten duen gauza bera egiten ari zara,

modu artisaun: produktu kosmetiko kaltegarri bat egiten ari zara".

Argazkian ikusten den izpiliku soroaren jabearekin izandako elkarriketa azaldu du Larreak: "Gizon hark, izpiliku soroan belar txar bat zeukan ('olo zoroa' deitzen zaiona, *avena barbata*) eta oso amorratuta zegoen, bost hektareako belar txarrak ezin zituelako eskuz kendu. Lotsatan esaten zigun barkatzeko, guri argazkiaren moretasun perfektu hori apurtzen zigula... Nik esaten nion uzteko horrelaxe, belar txar hori hor egotea nahi nuela, egotea ona delako, eta belar txar horren inguruan bazeudelako malbak, kamamilak, plantainak... biodibertsitatea zegoen, justu eredu industrialak suntsitzen duen biodibertsitatea. Ez dugu ordenagailu

programen bidez ere argazkitik olo zoroa kendu, gure mezuarekin bat egiten duen landaketa delako".

Larrea penatua da, ez dakielako izpiliku soro horrek zenbat urtez eutsi ahalko dion: "Hainbat lekutan landaketak suntsitzen ari dira, ekologikoak ez direlako ekonomikoki bideragarriak. Aldiz, izpiliku olio esentzialaren kontsumoa biderkatzen ari da urtez urte. Marka gero eta gehiago daude, iruzurra zabalduago dago eta zalantzarik ez daukat sintetikoa den olio esentziala ari zaigula gailentzen. Eta istripuak gertatzen ari dira: azaleko erredurak, kutsadurak eta barne erabileran oraindik are istripu larriagoak. Ni iritsita nago olio esentziala ez erabiltzeko aholkua ematera, dagoen segurtasun faltagatik".

Marketin berdea ere marketina da

Herritar kontzientziadun askok bilatzen ditu kosmetiko "naturalak" denda espezializatuetan. Larreak liburuan irizpideak eman ditu, osasunarentzat seguruak diren erosketak egiteko: "Ni gaur egunean fidatu, fidatzen naiz edozein kosmetikoren lehen bost osagaiak zein diren jakin ondoren. Izan ere, etiketaren INCI-an (osagai kosmetikoen nazioarteko nomenklatura) osagaiak produktu horretan duten kopuruaren arabera agertzen dira ordenean, eta lehenengo bost osagaietan dago produktuaren %90. Aldiz, non erosten den ez da inongo kriterioa. Eta marka bakar bati ere ez diot konfiantza erabatekorik ematen, ikusita formulazioetan ze iruzur dagoen. Niri ez dit balio *greenwashing*-ak, hau da, produktu bat berdetzea eta *ecofriendly* egitea eta hogeitapiku osagaietatik elementu naturalak hiru edo lau soilik izatea, eta justu hiru edo lau horiek iragartzea baina gainontzeko guztiaz ez ezer esatea".

Larreak alderantziz egin du liburu honetan, hau da, bertan agertzen diren osagai guztiak banaka-banaka azaldu ditu, bakoitzaren propietateak eta arriskuak seinalatuta, erabiltzaileak informazio osoa eskura izan dezan, erosketak egiterakoan ere. Larrea: "Lilurarik ez, faborez. Duela urte batzuk aloe vera-gatik esaten ziren gauza zoragarri haiek, orain koko olioagatik esaten dira, eta bost urte barru beste osagai bat izango da... ba beno, ez da denontzat, ez da halako miragarria eta baditu albo-ondorioak ere. Eta horri buruz zaila da informazio kontrastatua aurkitzen. Edo zehaztapenak, adibidez, 'ona da baina azal honentzat ez, edo honek gutxi erabili behar du, edo neguan erabili behar du...', horiek denak ez dira publizitateetan agertzen. Horregatik zegoen lan hau egin beharra: izan ere, kosmetikoak ondo formulatzeko, osagaiak ezagutu behar dira, eta sendabelarrak ere denak ez dira denontzat onak. Hori ezagutzeko oso-oso garrantzitsua da".

aurkituko begi-zuloak tapatzeko errezetarik, ez makillaje formularik. Ibai Arrietak libururako propio atera dituen argazkietan ere islatzen da hautu politiko hori, liburuaren aurkezpenean Arrietak adierazi zueenez: "Argazkiak ez ditugu laborategi batean atera, sendabelarrak lantzen dituzten lekuetara joan gara, eta argazki bakoitzean aritu gara auzitan jartzen ea edertasunaren kanonak erreproduzitzen ari ginen edo ez". Maitane Gartzandiak egin du liburuaren azala eta diseinua, eta argazki saioetan ere parte hartu du. Bere hitzetan, "kosmetika industrialek argazkietan oso produktu zuriak erakusten dituzte -"horretarako koloratzaileak erabilia", gehitu du Larreak-, aldiz, liburu honetan agertzen diren xaboiak eta kremak ez dira hain zuriak, kolore naturalak dituzte, organikoagoak", biribildu du Gartzandiak.

Edertasun kanonetan erori gabe, liburu ederra egin dute ARGIArekin hiru sortzaile hauek.

EDERGINTZA SEGURUA: KOSMETIKO GUTXI, OSAGAI GUTXIREKIN EGINAK

Liburuko formulak begiratzten hasieran, arreta ematen du osagai gutxirekin egin daitezkeela kosmetikoak. Esaterako, bi osagai baino ez ditu Larreak liburuan proposatzen duen serum oliotsuak. Hiru osagairekin egiten dira liburuko desodoranteak.

Perfume solidoak ere hiru osagairekin egiten dira eta oliotsuak bost osagairekin. Bost osagairekin egiten da ardi esnezko xaboa eta osagai gehien dituen xaboiak, kakaozkoak, hamar osagai ditu (tartean, hiru olio esentzialak dira). Bada sei osagairekin egiten den gorputzerako krema bat eta osagai gehien dituen krema hidratatzailea erredurentzakoa da, hamar osagairekin.

Beraz, osagai kopuruan ere be-reizten da Larreak sustatzen duen kosmetikogintza, industrialaren-gandik. Horrela azaldu du berak: "Dermatologian bada 'muga dermiko segurua' deitzen zaion kontzeptu bat, eta kutsadura kimikoarekin eta koktel efektuarekin, gure azalek aspaldi daukate gainditua jasan dezaketenaren muga hori. Kosmetika eredu honetara trantsizioa egiten dugunean, justu bestelako produktuak aukeratu behar ditugu: osagai gutxi dituztenak eta gutxi horiek ondo hautatuak eta eraginkorrak direnak. Hain justu uko egin behar diogu kontsumokerian erortzeari, ez du balio kosmetikoa lau osagairekin egin baina gero zortzi aktibo ipintzeak, ez direlako behar, eta tranpa igualean erortzen ariko ginatkeelako. Bainugelari oinarritzko kosmetiko gutxi batzuk eta osagai gutxirekin egindakoak izatea nahikoa da eta horretara jo beharko genuke".

Jakina denez, kosmetika industrialaren marketinak bestelako





amua jartzen digu, eta maiz erortzen gara: "Osagai miragarrietan egiten du azpimarra eta gu desiratzen gaude horrelako produktu miragarrietan sinisteko. Hau da, batek zimurrak kenduko dituela, besteak zelulitisa... agerikoa da ez dutela lortzen, eta osagai 'miragarri' horiek beti dira urrunekoak eta exotikoak, bitartekariei garesti ordaintzen zaizkienak". Larrearen hitzetan, ordea, "azalarentzat gutxi dira asuna bezain onak diren landareak. Edo plantaina-belarra, edo ilena... bost sendabelarrekin egin dezakegu kosmetika eredu on bat". Hori bai, liburuak azpimarratzen du azala zaindu nahi duenak gorputz barrua zaintzetik hasi behar duela eta krema bati ez zaiola eskatu behar lo faltak, elikadura desegokiak edo beste hamaika faktorek okertu dutena modu miragarrian konpontzerik.

Kontsumokerian ez erortzeko eta baliabideak optimizatzeke, liburuak proposatzen du begiratzea bertako formulatan zein produktuk dituzten osagai berak, horrela, osagai horiek erosita liburuak hainbat produktu egin

GOIZ BATEAN URTE OSORAKO XABOIA ETA KREMA

"Ez daukat kosmetika egiten hasiteko denborarik", pentsatuko du askok. Larreak azaldu du uste horren ustela: "Urtean behin eginda, urte osorako xaboa eta krema hidratatzaileak egitea goiz bateko lana da. Askotan interneten denbora gehiago pasatzen da ze krema erosi erabaki ezinik".

Liburuak urtaro bakoitzean zer kosmetiko egin ere azaltzen du: "Izan ere, gure gorputzaren beharrik aldatzen doaz bizitzan zehar, baina baita urtaroen arabera ere. Udan eguzkiak eta beroak eragindako kalteak goxatzeko produktuak erabiltzen ditugu, aldiz, neguan hotzetik babesteko ezpainetakoak bezalakoak... urtean bi-hiru aldiz egin ditzakegu kosmetikoak, garaiko beharrei egokituak".

ahalko ditugu. Gauza bera erabili beharreko tresnekin ere: "Honek ezin du izan etxean inbertsio handi bat eskatzen duena. Nik xaboa egiteko, adibidez, etxeko sukaldeko ontziteria erabiltzen dut, ez dut ontziteria berezirik erosi". Berrerabiltzearen kultura oso presente dago liburuan, esaterako, xaboen moldeak erosi beharrean, esne edo enparauen tetrabrik ontzietan egitea proposatzen du.

HONDAKINAK GUTXITU

Kosmetika eredu aldaketak hondakin gutxitzen asko laguntzen du, Larrearen arabera: "Pertsona batek bere bizialdian xahutzen dituen xanpu potoak mendi bat dira. Hori soilik xanpu potoetan. Horregatik, argi nuen liburuan xanpu solidoa egiteko formulak eman behar nituela, hau da, bilgarririk gabeko xanpua edo paperean biltzeko modukoa egin behar genuela. Etxean egingo ditugun kosmetiko ia denak kristalezko ontzietan jartzea gomendatzen dut liburuan. Izan ere, egin-berritan bero dagoen likido bat plastikozko ontzian sartzen badugu, produktu hori mikroplastikoz kutsatzen ari gara. Eta plastiko hori gaur egun arteriatan ari dira ikusten, eta hori ere ugalkortasun arazoekin lotua da".

Libururako argazki saioetan, Garbiñe Larreak liburuak kosmetikoak egin zituen, prozesu osoa geratu zedin argazkitan jasoa. Sortu zuten hondakin ia dena organikoa zen. "Sortzen den zaborra organikoa baldin bada, ondo gabiltza", poztu da Larrea. Hondakinak murrizteaz gain, argi du zer irabazten den: "Etxerako adina garbikari eta azal mantenu garri egiteko gai bazara, autonomia handia ari zara irabazten. Dirua aurrezten da, eta zalantzarik gabe, denbora ere bai". ●

BURUJABETZEN EGUNA AZAROAK 30



Hernaniko
Udala



10:30 Kultur bira
12:30 Luntxa



Gudarien Plazan
(Eguraldi txarrenekin
Atsegindegin)

Moneta
Elikadura
Telekomunikazioak
Energia
Hezkuntza
Bioaniztasuna
Zaintza
Etxebizitza

Andoni Martinez de Ustaran
Ainara Azpiazu
Uxue Apaolaza
Izaskun Lapaza
Zapotxin
Xabi San Sebastian
Paxo
Andoni Rekondo
Iker Ormazabal

“”

Desazkunderako kapitalismoa gainditzea ezinbestekoa da

Luis González Reyes

Sustrai Erakuntza fundazioak desazkunderari buruzko jardunaldiak egin zituen Iruñean urriaren amaieran. Han eman zuen hitzaldia Luis González Reyesek (Madril, 1974). Adrián Almazánekin batera 2023an argitaratutako liburua izan zuen oinarri: *Decrecimiento: del*

qué al cómo. Propuestas para el Estado español. Zientzia kimikoetan doktorea da, Ekologistak Martxan-eko koordinazio konfederalean izan da bederatzi urtez, eta gaur egun formazioa, ikerketa eta ekintzailtza ekosoziala uztartzen dituen Garúa kooperatiban ari da.

 XABIER LETONA BITERI  JAUME FERRANDO / LA DIRECTA CC BY-NC-SA

Kolapsoa apurka gauzatzen ari dela diozue liburuan, eta desazkundera horri aurre egiteko modua da zuen ustez. Zein da gaur egun bizi dugun egoera larri hori?

Egoera larriaz aritzean aldaketa klimatikoaz hitz egiten da batez ere, baina hori baino gehiago da. Hor da bioaniztasunaren galera, lehena bezain larria, edota ekosistemen funtzioen hondatzea, hala nola, polinizazioa, ura eta airearen arazketa, edota lurraren kalitatea... Eta horrek guztiak ekonomiari eta pertsonen bizitzari eragiten die. Horiez gain, krisi energetikoa dugu. Erregai fosilak dira gure energia iturri handiena -%80 baino gehiago-, horien agortze zantzu argiak ikus ditzakegu jada, eta gure gi-

zarteak horien menpeko dira erabat.

Hau da, XX. mendearen amaieran guk mundu bat ezagutu dugu eta hori gainbeheran dago, deitu horri kolapso edo nahi duzun moduan, eta ezezagunak zaizkigun egoeratan sartzen ari gara.

Egoera gaitz honen aurrean desazkundera proposatzen duzue. Azaldu dezakezu zer den?

Desazkunderak, funtsean, klimatikoa eta soziala den krisiari erantzun nahi dio. Klimaren ikuspegitik hiru lan ildo handi proposatzen ditu. Lehena, ingurumenak jasan ahalko duen energia eta material kontsumoen gutxitzea da. Bigarrena, tokiko ekonomien bultzatzea, ekonomia globalek energia kontsumo handia eska-

zten dute eta; azken finean, horrek ekarriko luke egungo orden sozial globala tokikotzea. Eta hirugarrena, gure bizitzetan fluxu naturalen integrazioa da, eremu naturalean existitzen den izaera zirkularra egiazkoa bihurtzeko.

Horrek esan nahi du gizartearen metabolismoa gehiago izan behar dela nekazaritzari lotuagoa industriari edo zerbitzuei baino. Eta nekazari metabolismo horren barruan, batez ere agroekologiari begiratu behar zaio, ekosistema aliatutzat hartzen duelako eta ez garaitu behar den etsai gisa.

Ingurumen erronkak aipatu dituzu. Eta sozialak zein dira?

Nagusiki aberastasunaren birbanaketa.



Hori politika zehatzen bidez egiten da: zerga politika, desjabetzeak, oinarrizko errentak, edo beste hainbat. Jakina, orain arte aipatutako neurri guztiak indarrean jartzeko, kapitalismoa gainditzea ezinbestekoa da. Horretarako, gure beharrak aseko dituen autonomia ekonomikoa eraiki behar dugu, merkatuaren menpeko izan ez gaitezten.

Desazkundeari ekiteko ekonomiaren hamar alor aipatzen dituzue. Nola egin desazkundera energiaren alorrean?

Energia berriztagarriek ez dute balio izan fosilak ordezkatzeko, baizik eta energia kontsumoa gehitu besterik ez da egin, salbu eta sektore elektrikoan.

Energia gutxiago izango dugu, batetik besterako jauzia apurka gertatuko da, baina seguruenik ez dugu izango elektrizitatea nahieran, orain bezala, 24 orduz eta 365 egunetan.

Egoera txar horren aurrean, ezinbestean energia berriztagarrietara jo behar da. Horrek, ordea, ez du esan nahi energia fosila dagoen lekuan berriztagarria jarriko dugula eta kito, denak berdin jarraituko duela. Energia berriztagarriak –apur bat sinplifikatuta esanda–, fosilen ia antagonikoak dira: fosilak stock formatuan izan ditzakegu pilatuta, eta nahi dugunean erabil; berriztagarriak ez, hainbat ezaugarriren menpe daude, eguzkia, haizea... Fosilen indarra oso kontzentratuta dago, petrolio litro bat

erretzen badut sekulako energia handia eskuratzen dut; energia berriztagarria, aldiz, oso modu barreiatuan iristen da. Eguzkiaren energia asko iristen da planetara, baina oso barreiatuta, horregatik eguzki-panel pila bat jarri behar ditugu energia kantitate esanguratsu bat lortzeko. Eta hori arazoa da, lurraldean gatazka sortzen delako energia, elikadura eta bioaniztasunaren artean.

Orain arte, gainera, berriztagarriak tamaina handikoak dira eta horiek erakitzekeko material kopuru handia behar da. Beraz, berriztagarria diogu, baina hori ez da guztiz egia. Horrez gain, gure ekonomiaren sektore batzuk elektrifikatzea oso gaitza izango da: petrokimikoa, adibidez, edo garraioa. Ezerk ezin du



ordezkatu gaur egun fosilek garraioari ematen dioten mugikortasuna, ez elektrizitateak, ez hidrogenoak, ezta agroerregaiek ere.

Liburuan diozue gaur egun pertsona batek urtean gastatzen duen 78 gigajulioetatik 36,8ra pasatu beharko ginatekeela. Erdia baino gehiago gutxitzea da hori. Zer kenduko dugu gure bizitzetatik?

2020an pandemia dela-eta gure etxeetan egon ginenean ohartu ginen bi gauza oso garrantzitsurekin: ekonomiaren zatirik gehienak ez du ezertarako balio pertsonak bizitzeko behar duena asetzeko. Bestetik, ekonomia izugarri geldotu bazen ere, oro har ez genuen izan beharrezkoak diren gaien horniketa arazorik. Hor ikusi zen kontsumo maila izugarri jaitsi dezakegula, eta horrek ez duela pertsonen duintasunean eragiten. Areago, gizartearen gehiengoari ekarpenik egiten ez dioten lanetan arituko ez bagina, akaso bizitza kalitatean irabaziko genuke.

Nekazaritzari helduko diogu.

Espaniako lehen sektorea ez da auto-

“”

Ez dugu denbora koltxoirik, eta beraz, hartu beharreko neurriak larrialdi batean hartu beharrekoak dira, neurri erradikalak

mobilgintza edo metalurgia, elikagaiena baizik. Beraz, abiapuntua ez da txarra. Oro har, elikagaien sektorea izan behar da lehena, beraz hazi egin behar da eta besteen traktore izan. Baina ez edozein modutan, baizik eta agroekologikoan. Beraz, nekazaritza hori ekosistemekiko begirunezkoa izan behar da, anitza, pertsonen beharretara lotua eta, batez ere, tokian tokiko kontsumorako pentsatua eta ez esportaziorako.

Zalantza handi bat: posible litzateke Euskal Herriak ekoiztea hemen behar den elikagai gutzia?

Azterketa zehatza egin beharko litzateke, baina esango nuke baietz. Lurra ondo prestatuz gero, agroekologikoaren ekoizpena eredu industrialaren besteakoa izan daiteke, baina gainera abantaila handi batekin, denboran jasangarria dela. Gasteizen egin dira azterketak inguruko lur eremu zabalekin hiriburua elikatzea posible litzatekeen ikusteko, eta oker ez banago, gutxi gorabehera baietz atera izan da.

Euskal Herriko industria aztertuko dugu.

Oro har esanda, euskal ekonomia lehen-gaien digestore handi bat da: hau da, hona lehengai pila bat sartzen dira, produktu bat sortzen da eta ondoren esportatu egiten da. Horrek energia menpekotasun handia dakar eta, gainera, CO2 sortzaile itzela bihurtzen zaitu.

Industriak eraldaketarako hiru ardatz ditu. Bata da gutxitzea: hemen oso garrantzitsuak diren automobilgintza eta metalurgia txikiagoak izan behar dira, adibidez. Bigarren ardatza da hazi behar den industria, adibidez elikagaia; eta altxariak eta arropa ere inportatu egiten dira hemen, beraz, komeni da

horiek haztea eta industria dibertsifikatzea, bertan behar dena bertan ekoizteko. Eta hirugarren ardatza eredu industrialara bera da: aldatu behar dira energia motak, materialak, hondakinen prozesuak... Eraldaketa tekniko handia beharko litzateke.

Eta automozioan? Auto elektrikoak ezin du ordezkatu ohiko autoa.

Auto elektrikoaren ekoizpenak mineral kopuru handiak eskatzen ditu, eta horietako askok agorpen zantzuak ditu; horrez gain, haietako gehienek eragin handi dute erauziak diren lekuetan eta hango jendeengan. Bigarren aukera da automozio publikoa bultzatzea, baina jakina, horrek ezin ditu egungo autoaren esparruko lanpostuak ordezkatu. Orduan, irtenbidea horren konplexua denean eta sektore horien etorkizunak lehenago edo geroago planetaren mugekin topo egingo duenean, zer egingo dugu? Pertsonak edo sektoreak salbatuko ditugu? Gure gizarteek badituzte baliabideak pertsonen aldeko apustua egiteko, galduta dauden sektoreetan indarra jarri beharrean.

Nola uztartu horrek dakarren lanpostuen murrizketa eta langileen lanpostuen defentsa?

Egoera gaitza eta konplexua da eta Euskal Herriko sindikalgintza egiten ari den lana eredugarria da alde horretatik; bakoitza bere modura, baina ELA, LAB eta ESK hortaz pentsatzen ari dira. Hori beste toki batzuetan pentsaezina da. Zertara itxaron behar dugu, kapitalak lantegi horiek itxi arte? Badakigu birmoldaketak nola egiten dituzten: itxi eta kito. Beraz, eraiki ditzagun koltxoi sindikalak egoera horri guztiari aurre egiteko. Euskal Herria mundu mailako CO2 igorle handienetako da pertsonako,

“”

Euskal Herria mundu mailako CO2 igorle handienetako da pertsonako, eta beraz, horren ondorioak bereganatu behar ditu

eta beraz, horren ondorioak bereganatu behar ditu, eta hori eginez gero, gauzak beste era batera egin behar dira.

“Berriztagarri superteknologikoei ez”, zuen beste oihuetako bat da. Berriztagarriak ez al dira desazkunderen urrats bat?

Ez gara ikusten ari trantsizio energetiko bat. Beste negozio esparru bat da, non besterik gabe dirua jartzen ari den eta kito, etxebizitzan edo inbertsio funtsetan moduan. Azpiegiturak ahal den lekuan jartzen dira, ahalik eta gehien, ez dago planifikaziorik eta protagonista ez da herritarra baizik eta enpresa transnazionala. Planetaren Hegoko hainbat lurralderen eta jenderen bizkar egiten ari da.

Argi dago berriztagarriek energia fosilak eta nuklearrak baino askoz eragin gutxiago dutela ingurumenean, baina oraingoa ez da trantsizio eredu. Guk ez dugu esaten ezin dela haize-errota bat gehiago jarri, baina trantsizioa laguntzeko, eta ez egungo eredu. Zergatik? Egoera larri honetan denbora funtsezkoa delako: 1970eko hamarkadan agian pentsa genezakeen lasaiago trantsizioa

nola egin, baina gaur egun ez, 2024an jadanik 1,5 graduko segurtasunaren tenperatura hori gainditu dugu, biodibertsitatearen galera itzela da, petrolioaren gainbehera agerikoa da... Ez dugu denbora koltxoirik, eta beraz, hartu beharreko neurriak larrialdi batean hartu beharrekoak dira, neurri erradikalak, egoerari aurre egiteko modukoak.

Teknologia xumea aipatzen duzue eta adibideak ikusita, ematen du iraultza industrialaren aurreko garaietara jo nahi duzuela.

Alde batetik bai, bestetik ez. “Teknika xumeak” deitzen den txostena egin dugu aurten, honako hausnarketarekin: ea nola izan ditzakegun aurrera begira ditugun erronkei uztartzen zaizkien teknikak. Batetik, badakigu teknika xume horiek ahalbidetu dutela jendea luzaroan duin bizitzea, eta oso ondo kontrolatzen dugu haien eragina. Bestetik, hori gaur egun erabiltzen ditugun teknikak, nahiko berriak dira eta euren eragina ikusten ari gara. Baina ikusten ari gara dena da teknologia berrietako batzuek sekulako eragina izan dezaketela ingurumenean, adibidez geoingeniaritzak. Hala ere, berrikuntza teknologiko guztia ez da txarra, eta seguru horietako asko erabili dezakegula aurrerantzean ere. Lehengo hainbat teknika asko hobetu dezakegu egun ditugun ingeniaritza ezagutzekin.

Desazkunderen beste ideia klabe bat, zuen ustez, boterearen deszentralizazioa da. Azaldu dezakezu?

Gaurko egunean, gehien dutenen eta gutxien dutenen arteko desberdintasuna inoizko handiena da. Eta aberastasunaren banaketaz eta boterearen banaketaz hitz egitea berdintsu da, biak erabat

“

Piztutako pospolo batek gehiago argitzen du piztu gabeko itsasargi batek baino.

Miren Artetxe

Bada esaldi bat pentsamendu bakoitzarentzat...

Badakizu?

Egin zaitez Jakinkide

Urtebetez doan.
Paperean edo digitalean
etxean jasoko duzu.



Jakin dabilen pentsamendua

lotuta daude eta. Beraz, boterea banatu behar da, ahaldundu behar dugu eta gure bizitzetako buruzko erabakiak hartzeko gai izan. Baina ez dugu hori lortuko autonomia ekonomikoa eraikitzen ez badugu. Gaur egun, bizitzeko behar dugun ia dena merkatuan erosten dugu, horretarako dirua behar dugu eta dirua izateko enplegu bat... Hortik aurrera dena gurpil bat da, enplegua topatzen dugunean, hortzez eta haginez defendatuko dugu.

Hori oso logikoa eta humanoa da, baina aldi berean, horrela gure ingurumena eta gizartea suntsitzen ari den muntrotua elikatzen dugu. Beraz, zirkulu hori hautsi behar dugu eta, apur-apurka, autonomia ekonomikoa eraiki. Horregatik ase behar ditugu gure elikagaien eta energiaren zati bat, zaintza... bizitzeko behar dugun oinarrikoena. Zeren eta oinarriko hori aseta dugunean, asko hobeto erabaki dezakegu gure denboraren gainerakoa zeri emango diogun.

Desazkundera elikatzekeko estrategiez ari zaretenean informazioaz, emozioez eta esperientziaz mintzo zarete. Hirurak dira beharrezkoak, diozuenez, baina esperientziak lehenesten dituzue.

Gizakiok behar dugu informazioa koherente aritzeko, baina jakintzak berak bakarrik ez gaitu eramaten ekimenera. Badakigu klima larrialdian gaudela, baina ez dugu horren arabera jokatzeko. Bigarren osagaia narratiba berriak eta imajinarioen eraikuntza da: horiek indar aktibatzaile handiagoa dute, baina batzuetan ipuin gisa ere ikusten ditugu, eta hori ez da guztiz aktibatzailea. Egiazki aktibatzen gaituena ipuin horiek gauzatuta ikustea da. Gizarte ekotopiko bat bisita badezaket, hori oso inperfektua izanda ere, errealitate zehatza da, eta horrek biziki akuilatzen ditu prozesu imajinarioak. Gizakia ez da lehiaren aldekoa, baina gizarte honetan lehia etengabe saritzen denez, ba lehia gure egunerokoan integratzen dugu. Elkarlana tamaina berean eta etengabe sustatuko balitz, biztanleriaren gehiengoak kooperatiboak litzateke.

Zuen ustez, komunalismoa da desazkunderaren eraikuntzarako oinarri nagusia, eta ez estatua. Izan daitezke osagarriak?

Estatuak 6.000 urteko historia du eta era guztietako estatuak izan dira, baina horietako bakarra ere ez da izan justua,



“”

Ezerk ezin du ordezkatu gaur egun fosilek garraioari ematen dioten mugikortasuna, ez elektrizitateak, ez hidrogenoak, ezta agroerregaiak ere

jasangarria eta demokratikoa. Beraz, ondorioa da estatu formatua ez dela emantzipatzailea eta jerarkiak fosilizatzen dituela. Bi, egungo estatua kapitalismotik bizi da eta bizitzeko behar du sistemak ondo funtzionatzea, beraz, nekez pentsa daiteke izan dezakeenik interesik egoera iraultzeko. Hiru, estatu formatua beste batzuk baino erresilienteagoa da, beraz, agian ez du guztiz desagertu behar, baina orduan izan behar du eragiteko ahalmen txikiagoa.

Gizartea saretzen ari diren sareak dira bultzatu eta berreskuratu behar ditugunak. Gaur egun, ekonomia sozial eta solidarioaren sareak, adibidez; elkar laguntzen duten hainbat familia eredu; eratzen ari diren bizikidetzarako komunitateak... Horiek izan daitezke, bestelako ekonomia bat eraikitzeko lehen zantzuak. Edozein modutan, komunalismoa ez da idealizatzeko ezer, eta horiek ere eraiki beharreko eremuak dira. Erdi Aroko komunalismoetan, esaterako, badira gauza interesgarriak gaur

egungorako ere jasotzeko modukoak. Nafarroan Arterra dago, soziokrazia lantzen dute, komunean jartzen dena kudeatzeko modu berritzaile eta indartsua, aurrekari historikorik ez duena. Har dezagun iraganetik eta egungotik, eta egin dezagun etorkizun desberdin bat.

Azaldu duzun guztiarekin, desazkunde eredu honek kapitalismoa gaitzetsu eskatzen du. Inork ez du hori lortu oraindik.

Bi ideia horri buruz. Bat, kapitalismoa nahiko sistema sozio-ekonomiko gaztea da, lauzpabost mende besterik ez ditu; estatuak 6.000 urte ditu eta patriarkatuak gehiago. Baina denboran irauteko sistema moduan, kapitalismoak oraindik asko irakutsi beharko du, besteak beste denboran irauteko etengabe hazi beharra duelako, eta hori ez da posible izango. Jakina, horrek ez du esan nahi kapitalismoaren bukaera denik, kapitalismoa ez da bakarrik jauziko, bota egin beharko da.

Bigarren ideia: garai larria bizi dugu eta horrek behartuko gaitu garai “normalagoetan” egingo genituzkeenak baino jauzi handiagoak egitera. Pandemian etxe barruetan geundenean, gehienek desiorik handiena ez zen merkataritza gune batera joatea –nahiz eta askoren gustukoa izan–, baizik eta maite genituen pertsonekin egotea. Beraz, horrek esan nahi du ongizatea oinarritzen dela baldintza egokietan dauden pertsonen arteko kalitatezko harremanean. Horrek zerikusi handia du desazkunderaren filosofiarekin. Desazkundera zaila da, ez dugu errezetarik hori egiteko, ezta bideirik ere, lan handia egin beharko dugu eta bideak zabalduko zaizkigu. ●



Bertako ekoizleekin konpromisoa

Hemengoak gara eta bertako produktuen kontsumoa sustatzen dugu

Hemengoak
izatea ona da



EROSKI

zurekin

PRAKTIKALDIAN



Julene Flamarique tafallarra eta Leire Ibar azpeitiarra ARGIAren Lasarte-Oriako egoitzan.

Jarri praktikan ikasitako teoria

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Berezia egiten zait entzutea hain praktikoa den kazetaritza bezalako ogibide bat izan asmo duten unibertsitateko ikasleek ez daukatela zertan karrera osoan ikasten ari diren hori praktikan jarri; ez dutela nahitaez hedabideren batean praktikaldirik egin beharrik. Praktikak boluntarioak dira eta, beraz, ikasketekin aldi berean uztartu beharra dago. Bolonia sistemarekin duela hamarkadaren bat sartutako gola tarteko, ikasleei klaseetara bertaratzeko eskatzen zaie, eta hala borondatezko praktikaldia zaildu. Zurrumbilo horretan erabaki dute Leire Ibarrek (Azpeitia, 2003) eta Julene Flamariquek (Tafalla, 2002) ARGIArean lau hilabete pasatzea.

Kazetaritza eta Ikus-Entzunezko Komunikazioan gradu bikoitza egiten ari dira biak eta urriaren 1etik urtarrilaren 31ra bitarte ARGIArean webgunerako eguneroko albisteak idazten ariko


dira eta dagoeneko, bi hilabete pasata, hartua dute martxa.

AURREZ AURREKOAREN INDARRA

Etiketarik ez diren lanean neurri handi batean eta astean behin bertaratzen dira Lasarte-Oriako egoitzara. “Erredakzioan egoteak ematen dizu jendearekin aritzea, sortzen diren zalantzak ondokoarekin argitzea. Gertutasun hori. Hori ez dago etiketik arituta. Une honetan, baina, praktikak egin ahal izateko aukera bakarria modu hau nuen”, aitortu digu Ibarrek eta Flamariquek gehitu dio “askoz probetxu gehiago ateratzen zaie praktikei erredakzioan bertan egonda, harremanak eginez, aurrez aurreko zuzenketa eta aholkuak entzunez, indibidualismoa baztertu eta gure arteko sareak eraikitzea funtsezkoa baita gizarteari ikuspuntu kritiko bat eskaintzeko”.

Kontent dira biak ARGIArean. Ibar sekula erredakzio batean egon gabea zen orain arte eta unibertsitateko teoria errealitateara ekartzeko aukerak kazetaritza lana ezagutzeko bide eman dio. Flamariquek “gustuko” ditu ARGIArean lantzen dituen gaiak, “gazteon interesei eta problematikei bete-betean eragiten dieten gaiak hitz egiten dutelako”. Lasarte-Oriako egoitzan dagoen “lan-giro ona” azpimarratu dute biak.

Zine mundua probatzeko gogoia du azpeitiarrak, ikus-entzunezkoetan ere ari baita trebatzen. “Ikasten jarraitu nahi dut, hainbat gauza probatzen; oraindik ez daukat norabide garbirik, baina uste dut lan desberdinak ezagutzeko momentua dela, egin nahi dudana aurkitzen joateko”, esan digu. Tafallarrak, kontrara, frantsesari eta ingelesari helduko die, eta era berean euskaraz sortzen, idazten eta trebatzen jarraituko du. ●



Francis Williamsen bikaintasunaren froga



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA


Londres, 1928. Victoria and Albert Museum-era koadro berezi bat iritsi zen dohaintzan: margolanean gizon beltz bat ageri da, ileordea eta lebita jantzita, liburuz eta tresna zientifikoz inguratua. Museoan horrela katalogatu zuten: “Erretratu satiriko bitxia, beltzen hezkuntzan huts egindako esperimentu bat irudikatzen duena”.

Gerora jakin zuten koadroan ageri dena Francis Williams (1690-1770) zela, jamaikar zientzialari, abokatu, arte bildumagile eta poeta. Williams esklabo jaio arren, familiak emantzipatzea lortu zuen eta, gaztetan, Cambridgera bidali zuten ikastera. Bere adimenari eta asmamenari esker, 1716an Royal Society prestigiotsuan sartzeko proposatu zuten. Baina Isaac Newton eta Edmund Halley kide zituen batzorde batek proposamena bertan behera utzi zuen Williamsen “gorpuzkeragatik”. Beltza zelako alegia.

Aita hil zenean, Jamaikara itzuli zen eta han ospe handia lortu zuen bere lan zientifikoiari esker eta komunitate beltzaren aldeko ahaleginengatik. Besteak beste, haur beltzentzako doako eskola bat zabaldu zuen.

Horrek Jamaikako zein nazioarteko txurien ezinikusia piztu zuen. David Hume filosofoak txurien nagusitasunaren frogatzat jo zuen Williams: “Jamaikan talentua eta erudizioa duen gizon beltz bat badela diote; baina ziurrenik lorpen eskasengatik miresten dute, hitz argi gutxi batzuk esateko gai den loroa bezala”. Edward Long historialari eta esklabotzaren defendatzaileak, aldiz, Williamsekin esperimentu bat egin zutela asmatu zuen, “lanketa egokiarekin, eta eskolan nahiz unibertsitatean matrikulatuta, beltz batek txuri batek bezala irakurtzeko gaitasuna lor zezakeen deskubritzeko”.

Princeton Unibertsitateko Fara Dabhoiwala historialari eta ikerlariak Londresen dagoen Williamsen margolana xehe aztertu berri du. Koadroaren egilea eta data identifikatzeaz gain, jamaikarraren lorpen



Francis Williams, Jamaikako eruditua, William Williams, 1760.

zientifikoei buruzko informazio argigarria topatu du. Williamsek mahai gainean liburu bat dauka irekita: Isaac Newtonen *Principia* da, eta kometen orbiten iragarpenaz hitz egiten duen orrialdea dauka zabalik. Gainera, leihotik zeru zati bat ikusten da, eta Dabhoiwalak bola txiki txuri bat identifikatu du. Bere esanetan, bola hori Halley kometa da, 1759an Jamaikaren gainetik igaro zen unean. Gogoratu Newtonek eta Halleyk Royal Societyn sartzeko aukera kendu zion batzordean parte hartu zutela.

Beraz, Williams gai izan zen Halley kometaren ibilbidea zehaztasunez iragar-

tzeko, giltzarria izan zena grabitatearen iragarpenak egiteko; garai hartan zientzialari gutxi batzuk ziren kalkulu horiek egiteko gai eta Newtonek berak hori egitea oso konplikatua zela aitortu zuen.

Dabhoiwalak uste du koadroaren enkargua Williamsek berak egin zuela bere astronomiako ezagutzak erreibindikatzen. Koadroari esker astronomo bikaina zela erakutsi zuen eta, astrologoa ez zen arren, etorkizuna irakurtzeko gai izan zela, koadro horrek bizi zelarik ukatu zioten aitortza lortzen lagunduko ziola igarri baitzuen. ●

SASOITU

UDAZKENA AGURTZEN
NEGUA BESARKATZEKO

AMAIA DIAZ DE MONASTERIOGUREN OSINAGA
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

Abenduak hostoen kolore marroia dauka: lurrean, intxaurren biluziaren azpian, geratu diren hostoena. Intxaurren bukatu du bere zikloa. Atsedean hartzerik doa: zuztarrak indartuz, elikatuz, nutrizioa du helburu. Barrera begira, barrenak osatzeko garaian dago, orain arte egin duen lan eta esfortzuaren ostean, zikloari bukaera eman dio, neka-neka eginda dago. Ez du beldurrik, konfiantza du, natura horrela baita, hasi eta bukatu, udaberri-rako prest egongo da berriz, beste behin, indartuta eta energiaz beteta loratzeko eta ziklo berriari hasiera emateko.

Giltzurrunak zaindu, hezurdura indartu eta beldurrik baretu. Hona hemen horretarako neguko elikadura eta zaintzarako tresnak. Hezurak zaintzeko, oinarrizkoa da neguan eta hotz dagoenean ohitura osasuntsuak hartzea. Gorputza mugitzea, indarra lantzea, luzaketak egitea. Naturan eta egun argiz, eguzki ordutan. D bitamina hartzeko, saia zaitetz eguzkitan jartzen egunero minutu batzuetan, neguan udan baino denbora gehiago. Udazken bukaera eta negu hasieran ditugun barazkiak lagungarriak dira giltzurrun eta hezurdurarentzat. Aztertu dezagun zeintzuk diren.

Lehen platererako, koilara erabiltzen den jakiak modan jarriko ditugu, zopak eta lekaleak. Beroak eta berriztatzaileak dira. Garrantzitsua da gure elikadura planetan ura, barazki saldak, zopak, barazki kremak eta infusioak txertatzea. Ureztatu dezagun gure gorputza, etxeko landare-rik garrantzitsuena gara.

AZA ETA AZAKIAK

Kaltzio iturri begetalak dira, fruitu lehorrak eta lekaleekin batera. Magnesioa ere lor

dezakegu hosto berdeetatik. Konposatu sufredunak ez ezik, funtsezko nutrienten kontzentrazio handiak dituzte. Neguan, frutarik ez zegoenean, C bitaminaren iturri garrantzitsua ziren, gordinik edo apur bat egosita jaten baziren. Gainera, B multzoko bitaminak, A bitamina (beta-karotenoa), azido folikoa, selenioa, burdina, magnesioa, potasioa eta flabonoideak eskaintzen dituzte, dosi esanguratsuetan. Lagungarriak dira azakien hostoak zauriak osatzeko. Urdaileko gaitz eta ultzeratan zukua hartzen da. Hesteetako arazoetan laxante eta erregulatzailea da. Hezurren laguna da, osteoporosia ekiditeko. Minbizi jakin batzuen prebentzioan eragina dute.

Kontuz: kruziferoek (brokolia, azalorea, aza...) tiroideak iodoa xurgatzea eragozten dute. Hala ere, iodoa bahitzeko ekintza hori desagerrarazi egiten da elikagaia kozinatuta edo hartzituta dagoenean.

Aza horietako asko egosi eta kremei gehitu dakizkieke, patata eta azenarioekin. Beste batzuk, lekaleekin nahastuta prestatzen dituzte. Animatu eta probatu pixka bat egosita jan daitezkeen barietateak (brokolia, aza, lonbarda, erromeskoa...) bikainak dira lurrunetan, errengosita, papillotean edo labur salteatuta berakatz eta intxaurrekin.

Aza hartzitua edo chucruta platerean jartzea izan daiteke modua gure elikaduran probiotikoen hazkuntza sustatzen duten eta toxina eta patogenoen aurkako lehen defentsak gisa diharduten bakterio onuragarriak gehitzeko.

BABARRUNAK

Babarrunek ezaugarri nutrizional ugari dituzte, osasunerako onura ugariarekin. Proteina-iturri oso onak dira. Beraz, bigarren plater bezala hartzen dut eta astean



hirutan gutxienez, bigarren plater bezala lekaleak jatea gomendatzen da. Garrantzitsua da ogi, arroz, patata eta barazki-ekin menua osatzea. Zuntz asko dute, ondo mastekatzeko ez baditugu, arazoak ekar ditzakete digestio eta haizeekin. Poliki eta neurrian jatea gomendatzen dute.

Burdina eta zinka dituzte, defentsak handitu eta sistema immunologikoa indartzen dutenak. Lekaleak prestatzeko modu asko dago: lapikoan, entsaladan, saltsan, hanburgesan, pastelak eginda... Lagungarriak dira anemia eta nekaldian. Tentsio altua dutenentzat ere bai, sodio gutxi eta potasio asko dutelako. Eta idor-rreria arazoetarako, zuntza dutelako.

GAZTAINAK

Dituen ezaugarri eta onurengatik, merezi du gaztainaz gozatzea bere sasoi osoan. Karbohidrato konplexuak dituzte, oso asegarria da eta mikrobiota elikatzen du. Ordu-artean eskutada bat gaztaina moka- du osasungarria da. Ez ahaztu ondo mastekatzeko eta poliki jatea. Nutrizionalki, lekale eta zerealen antzekoak dira.

Gaztaina errekarik jatea da ohikoena, baina egosi ere egin daitezke, eta errezeta askotan erabili daitezke gordinik, purean eta "marron glace" gozoan, adibidez.

Elikagai garrantzitsua dira ume, haurdun, ahuldadean direnentzat, nekatuta daudentzat eta kirolarientzat.

Ondo bukatu urtea. Urte berriarekin bueltan izango nauzeu. ●

A ZE FAUNA!

SUGANDILA BAT “EZER EZ DAGOEN LEKUAN”



IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Asko hitz egiten da basoaz azken aldian. Basoak berreskuratzeaz, basoak sortzeaz eta basoaren hedadura zabaltzeaz entzungo duzu sarri. Eta ekintza ona izan daiteke zalantzarik gabe, ekosistema moduan duen balioa handia delako. Baina, basoari jartzen diogun atentzio eta indar horretan, badira zeharo ahaztuak ditugun habitatak ere, beste espezie askorentzat ezinbestekoak direnak eta biodibertsitatearentzat balio handikoak direnak. Gizakiaren begietara, ordea, estetikak pisu handia du, eta baso baten edertasunak eta handitasunak gehiago erakarriko du ia landaretzarik ez duen klima mediterraneoko eremu soil bategen baino. Desertu txiki bat diruditen habitat horiek “ezer ez dagoen lekua”k iruditzen zaizkigu eta...

Eta hortxe, justu, landaretxa oso motza, 10 cm baino txikiagoa dena beti, eta soilgune anitzez beteriko eremu horretan bizi da sugandila berezi bat: espartzudi-sugandila. Ez oso ezaguna, agian, baina beste edozein sugandilak adina merezi duena, zalantzarik gabe.

Espartzudi-sugandilak Nafarroa hegoaldean aurkitu du bere bizitokia Euskal Herrian. Lurzoru buztintsuak ditu gustuko, eta batez ere, ezkaiez edo xarbotez osaturiko gunek irekiak edo albi-



Espartzudi-sugandila Nafarroa hegoaldean, Bardeetan.

tza eta espartzua, sugandilaren izenak dioen moduan, osagai moduan dituzten lekuak. Nafarroan egindako ikerketen arabera, estepan aurkitu izan da batez ere (egindako behaketen %70,8an), baina baita sastrakadi mediterranean (%25ean) eta labore lur lehorretan eta alfer-lurretan (%4,2) ere. Landaretxa askoko eta luzeko gunek, ordea, saihestu egiten ditu. Altuerari dagokionez, 660 m eta 1.350 m artean aurkitu daiteke animalia hau. Horregatik guztiagatik, espartzudi-sugandila ez da oso ugaria, ezta ikusteko oso erraza ere.

Tamaina txikiko narrastia da. Arregri kolorekoa izan ohi da eta lau marra zurixka nabarmen ditu, aurretik atzera jarriak gorputzean. Marra horiek baina, kolore berdeak edo horiak ere hartu

ESPARTZUDI-SUGANDILA

Psammodromus hispanicus

TALDEA: Ornoduna/Narrastia.

NEURRIA: 5 cm inguru, isatsik gabe.

NON BIZI DA? Leku ireki mediterraneotan, xarbotadietan...

ZER JATEN DU? Ornodun txikiak.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

ditzakete populazio batzuetan. Toki batzuetan, batez ere, ugaltzen dira. Garai horretan, emeek hiru-lau arrautza jarriko dituzte, landaretzaren oinean, lurrazpian egindako zuloan. Sugandila umeak abuztua-irailan jaioko dira.

Inguruan inor sumatzen badu, bertan dagoen landaretxa baxuaren bila aterako da, bat-batean eta azkar. Landaretxara iristean, brast! Geldituko da, eta ez da mugituko denbora batez, bere gorputzeko kolorea ingurunean ondo mimetizatzen dela aprobetxatuta. Bere bila hasiz gero, mantso-mantso mugituko da landaretzaren ertzera ateratzeko. Behin horra iritsita, berriz ere abiadura azkarra hartuko du, hurrengo landaretxara joateko eta beste behin, han ezkutatzeko. Arraroa izan ohi da, bestalde, zuloetan ezkutatzea.

Negua lozorroan igarotzen du eta Nafarroan apiriletik urrira izaten da aktibo, nahiz eta abenduan noiz edo noiz ikusi izan den. Normalean, eguraldi txarraren ostean aktibatzen da eta ornogabe txiekiz elikatzen da batez ere.

Nafarroan, nekazaritza intentsiboa da espezie honen mehatxu handietako bat, suteez, urbanizatze prozesuez eta bere bizitokia nekazaritza lur bihurtzeko prozesuez gain. Izan ere, gizakiaren begietara “ezer ez dagoen lekua” bat kontserbatzea ez da beharrezko kontua... ●

IÑAKI SANZ-AZKUE

BIRIGARROAK ZIRINETAN HERIOTZA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Datozen 100-150 egunak erdi lo negukatzen igaroko dituzte landare askok. Beren jakiak sortzeko nahitaezkoak dituzten hostoak askatu eta aurreko 200-250 egunetan metatutako erreserbei esker biziko dira. Aurrez hostoetan dagoen energia azken ttanttaraino xurgatzen eta jasotzen saiaturko dira. Horrek dakar urte osoan ezkutuan dauden koloreak bistaratzea. Toki batzuetan, goi mendi hotzetan, dagoeneko hosto gehienak orbelduta daude, eta behe bailaretako babesekoak soil-tze bidean dira.

Azal-bizirik geratzen direnean, bat-batean hor azaltzen dira hostailaren itzalean kukulduta egon diren bizilagunak, harro negualdiko eguzki epela hartzera: goroldioak, likenak edo goroldio zuriak, ardagaia, huntza (*Hedera helix*), haritz-iratzea (*Polypodium interjectum*) eta abar. Zuhaitzen gainean bizi diren landareei “epifito” esaten zaie; haritz-iratzea eta goroldio zuria, adibidez. Horiek ez dute inolako trukerik zuhaitz eramailearekin; autotrofoak dira, bere kasa moldatzen dituzte elikagaiak, airetik, euri uretik eta azpian pilatzen duten hauts, lur, orbel edo materia organikoaren usteltzetik.

Zuhaitzek eta arbolek badituzte, baina, bere bizkar bizi diren bizkarroiak edo parasitoak; ezagunena mihura (*Viscum album*). Ez da mihura erabat bizkarroia; bai, izerdia osten dio zuhaitzari, baina izerdi gordina, sustraietatik hostoetara doana, ez izerdi landua, hostoetatik sustraietara jaisten dena. Mihurak bere sustraiak arbolaren adarretan errotzen ditu eta izerdi gordina lapurtzen du, gero berak landuko duena; berdea da eta fotosintesia egiten du; hortik, parasito ez, “hemiparasito” esaten zaio, erdi parasitoa, sasiparasitoa edo parasito txikia. Mihuraren jokabide horrek bera erroztatu den tokitik aurrerako adar muturra ihartzea dakar, atzo ez bada etzi. Nabarmen ikusgarria da bere eramaile edo ostalarietan.

Santalaceae familiakoa da mihura. Orain arte ezagutzen diren familia horretako 43 generoetan biltzen diren 1.100 espezieak lapurrak dira, parasitoak edo hemiparasitoak. *Viscum*, bere generoaren izenak, latinez “mihura” esan nahi du baina baita “biska” ere. Bere fruituen likarekin egiten da biska, biska-adarrean edo biska-txotxean jarri eta txoriak harrapatzeko ezagutu duguna. Lika gozoa

Bizi Baratzearen AURKEZPENAK DURANGOKO AZOKAN

Ilargia eta landareak 2025eko agenda:

Abenduaren 6an, 17:00etan,
Arte eta Historia Museoa.

Haziak liburua:

Abenduaren 6an, 17:30ean,
Arte eta Historia Museoa.

Kosmetikoak sendabelarrekin liburua:

Abenduaren 7an, 17:00etan,
Talaia Areto Nagusia.

Ilargiaren egutegia 2025:

Abenduaren 7an, 17:30ean,
Talaia Areto Nagusia.

izango da hori: txoriak erakartzen ditu, alea jan eta haiek hedatuko dute gero barruko hazia zirineta. Edo mokoarekin, fruitua jan eta likarekin hazia mokoan itsatsita gera daiteke, eta moko garbitzeko adarrean igurtzeko keinuarekin hazia hantxe, adarrean itsasteko pronto uzten du. Birigarroa ezaguna da langintza horretan, eta latinezko esaera oso zahar eta entzutetsu bat eragin zuen: “*Turdus ipse sibi malum cacat*”, birigarroak zirineta arazoak (edo heriotza). Birigarroak mihura hedatuz bera harrapatu eta kazularako bidean jarriko duen biska egitea errazten du; birigarroak egin eta adarretan zintzilika geratzen den zirina, gero hegaztiak ehizatzeke prestatzen den biskaren oso tankerakoa da.

Esaerako “*Turdus*” hori agian ez da birigarroa, karrastarroa baizik, izan ere, bere izen zientifikoa, *Turdus viscivorus* da eta *viscivorus* horrek mihurazalea esan nahi du. Itzultzaileentzako lana...

Mihurak bistan dira, dagoeneko zuhaitz eta arboletako adaburu garbalduetan. Fruitu zuriak orain heltzen ditu, ikusteko moduan direnean. Birigarroak ere bada biltza, ehiztari gosenen baimenarekin...

“Birigarro” esaten badizute, pieza ederra zarela diote. Birigarroaren astean jaioa buru argiari esaten zaio. Birigarroa gorabehera, guk mihura neguko solstizioarekin lotzen dugu, ate-gainetan zintzilikatuz, eta azpitik igarotzean musu emateko ohitura etorri da; kontuz musua bisketan itsatsi gabe... ●



Karrastarroa (*Turdus viscivorus*) mihura (*viscum album*) gainean.

GAZTAINA FERIA BASABURUAN

GAZTAINADIAK ETA GAZTAINAREN KULTURA PROTAGONISTA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Nafarroako beste zenbait herritan bezala, duela lau zapabost urte hasi ziren Basaburuan gaztainondo inguruko lanketarekin. “Bertako gaztain barietateei lotutako ikerketa abiatu zuen Nafarroako Gobernuak, eta orduan hasi zen hemengo herrietan ere gaztainaren historia berpizten”, azaldu du Xabier Azpiroz Latasa Basaburuko Garapen Batzordeko kideak eta Gaztaina Feriaren antolatzaileak. Gaztainari lotutako asteburua egin dute azaroaren 2an eta 3an.

JAKINDURIA GALTZEN EZ UZTEKO

Eskualdeko adineko jendearekin elkarrizketak egin zituzten hasteko, gaztainondo barietatez eta horien kokalekuez galdeztzeko. “Nahiko berandu iritsi gara, gaztainadiekiko jakinduria kasik galduta zegoen ordurako”, dio basozainak. Hala ere, zenbait arbola identifikatu eta horien laginak analizatzera bidali dituzte urteotan. “500 laginetik gora analizatu dira eta horietatik hemezortzi gaztain barietate atera dira, guztiak Nafarroakoak, beste inon oraindik azaldu ez direnak”, gehitu du. Basaburuan bost barietate topatu dituzte.

Bertako gaztain barietateak biltzeko




lanari ekin ziotenean, segituan sumatu zuten gaiak herritarren interesa piztu zuela. “Jende asko mugitzen hasi zen, gaztainadiak berreskuratu nahian, horiek mantentzeko kezkaekin”. Cederna Galarur landa garapeneko elkartarekin, INTIA elkarte publikoarekin eta Plazaola Partzuergoarekin elkarlanean zenbait hitzaldi, formazio eta tailer antolatuzko aprobetxatu zuten olatua.

BATZUK NOSTALGIATIK, BESTEAK EKOIZPENETIK

Basaburuarrak azaldu duenez, herritar batzuk nostalgiatik edo betiko gaztain zaharrak mantendu nahi izatetik hurbildu dira egitasmora, baina badira beste batzuk ekoizpen aukera bat ikusten dute-


nak. “Alderdi hori ere oso garrantzitsua iruditzen zaigu, ekoizpenaren atea zabaltzeko aukera ikusten dugulako, eta aurrera begira, gaztainondoaren kultura mantentzeko gako garrantzitsu izan daitekeelako”. Hain zuzen, hori izan da Basaburuko I. Gaztaina Feria antolatzearen helburu nagusietako bat: Euskal Herrian nahiz kanpoan gaztaina ekoizten diharduten ereduak ekartzea.

Azaroaren 2an, gaztaina ekoizpenarekin lotutako hainbat esperientzia eraman zituzten mahai ingurura. Gilles Texierrek Ipar Euskal Herrian gaztainarekin egiten ari diren lanaz hitz egin zuen, eta Isidro Alvarezek Leongo El Bierzon duten gaztaina ekoizpena aurkeztu zuen. Igandean, berriz, gaztainaren azoka egin zuten Jauntsaratsen. Bertan, gaztainekin egindako produktuen postuak egon ziren. “Nafarroan ez dugu oraindik gaztainari lotutako ekoizpenik, baina kanpoko esperientziekin erakutsi nahi izan dugu benetan posible dela”. Erantzun ezin hobea izan du ekimenak, eta antolatzaileek nabarmentzen dutenez, hasiera besterik ez da izan hau. “Gaztainari dagokion balioa emateko lanketarekin eta azokarekin segitzea da asmoa”, amaitu du. ●



“ ” Konplexutasuna agertzeko lekua da literatura, ez lezioak ematekoa

Uxue Alberdi Estibaritz



Helduentzako zazpigarren lana argitaratu berri du Uxue Alberdik, hirugarrena ipuingintzan: *Hetero* (Susa, 2024). Zortzi narrazio bildu ditu liburuan, eta denen abiapuntua izan da memorian geratu eta “noizbait ere honi buruz idatzi behar dut” pentsarazi dion paisaia, une edo harremanen bat.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Hamaika urte pasa dira *Euli-giro*-tik —zure bigarren ipuin-liburutik—.
Koska igarri dut, nabarmen.

Azkenengo urteetan ahalegin kontzientea egin dut hobeto irakurtzen eta idazten ikasteko. Lehenengo liburua, *Aulki bat elurretan* (Elkar, 2007), 20 urterekin idatzi nuen; pasio handia neukan irakurketarekiko eta idazketarekiko, baina oso haztamuka idazten nuen. Gogo handia neukan, baina ez nekien zer idatzi nahi nuen. Sormen-prozesuetan beti dago haztamukako fase bat, beharrezkoa, bide ezezagunetatik ibili behar baitugu. Baina, gehiago eta hobeto irakurri ahala, tresna eta intentzioa zorrozten ahalegindu naiz. *Euli-giro*-n ideia edo sentsazio gutxi batzuetatik abiatu nintzen, eta ez nekien nora nindoan.

Hetero-n, idatzi aurretik hurbilketa-lan handia egin dut oharrek hartzen, memoria-arietak egiten, egitura narratiboak bilatzen, materiala biltzen. Baneuzkan istorio batzuk deika —per-

tsionaien arteko dinamikak, paisaiak, hizkerak, eszenak— eta horiek kontatzeko modurik niretzat zintzoenaren bila aritu naiz. Eta gozamina izan da. Zortzi ipuin idatzi ditut hiru urtetan, baina igual 500 irakurri. Zaila da norbere eboluzioari atzera begiratu bat egitea, baina uste dut kontzienteago idatzitako ipuinak direla, eta irakurle-ibilbide askoz ere handiagoarekin.

***Euli-giro*-z geroztik argitaratutako liburuetan entzumena oso presente dago.**

Entzumenarena diozu, eta, ez dakit nola lotzen diren, baina uste dut baduela zerikusirik: *Euli-giro*-tik aurrerako liburuak ausartagoak direla uste dut. Ordura arteko lanetan gehiago ezkutatzen nintzen hitzen atzean. Idazketa izan daiteke gortina, edo izan daiteke leiho. Benetan iruditzen zait zerbait ondo kontatzeko lehenengo baldintza kontatu nahi izatea dela, kontatzera ausartzea. Edozein arte

diziplinatan erakusteko edo ezkutatze-ko erabil daitezke baliabide tekniko-artistikoak. Erakusteak beldurra ematen du, baina nik beldurren gainetik beraien nahaspila erakustera ausartzen diren idazleak miresten ditut. Denok gara kaos bat, inor ez dago ezertaz erabat ziur; denok dauzkagu kontraesanak, denok gara kutreak eta ederrak. Horregatik, laprast egiteko, jendea gurekin desados egoteko, gustatzeko eta ez gustatzeko arriskuarekin ere esatera ausartzea inportantea iruditzen zait fundamentuzko zerbait egiteko. Uste dut *Jenisjoplin*-en hasi nintzela ausartago izaten, eta *Kontrako eztarritik*-en, *Dendaostekoak*-en eta *Hetero*-n badagoela esateko atrebimendu hori. Zer da kontatu nahi dudana? Zer da ni zirraratzen nauena? Entzumenera nolabait ekarrita, bada: hasteko, nire barruari entzun diot.

***Hetero* jarri diozu izenburua. Irakurketa teorikoek zer-nolako eragina izan dute zure lanean?**

Hasteko, esan behar dut ez nintzatekeela ausartuko liburu honi *Hetero* izenburua jartzen zugatik izan ez balitz. Hori horrela da. Leireri [Lopez Ziluaga, Susako editorea] ipuinak entregatu ahala, erdi lotsatuta esaten nion: “Oso heteroa da”. Bazen esateko modu bat: “Hau da niri atera zaidana, baina konturatzen naiz”. Eta halako batean pentsatu nuen: “Eta hau baldin bada ipuin hauek niri esaten ari zaizkidana?”. Orduan, beste toki



batetik begiratu nien. Barruak eskatu ahala joan nintzen ipuin horiek sortzen, eta, tituluarekin topo egin nuenean, aldi berean sortu zitzaizkidan beldurra eta ardura. Izenburu potentea da, bastante *enpotratzailea*. Paretaren kontra jartzen zaitu. Ez da gauza bera liburu bati *Ukitzen gaituen ura*, *Gizakiaren adin guztiak* edo *Hetero* jartzea. Besteak ederrak izan zitezkeen, sinbolikoak, baina ez zuten asko *esaten*, ez zuten bildumaren gainean argi espezifikoa bat isurtzen. *Hetero*-k bai. *Hetero* irakurtzean, nik uste, denok jartzen garela pixka bat alerta. Zer esan nahi digu izenburu honekin? Beldurra ere ematen zidan, banekiela-ko izenburuari buruz hitz egin beharko nuela. Baina barruak baietz esaten zidan, ulertzen ez dudana guztiarekin ere. Izenburu hau ez da zerbait oso kontrolatua. Badaude ikusten ditudan gauza batzuk, eta badaude puntuitsuak, oraindik gorputzetik erabat pasatu ez ditudanak. Idazketa, niretzat, erabat etxekotu gabe dauzkadan emozioak, oraindik guztiz ulertzen ez ditudan kontuak mugimenduan jartzeko modu bat da.

Tituluarekiko nire puntuitsuak badu zerikusirik heteroarauarekin: sistema batean botere-lekuan zaudenean, ez duzu hari buruz hainbeste pentsatu behar izaten. Pentsatzeko asko lagundu zidan McKenzie Warkek zuk itzulitako *Maitasuna eta dirua, sexua eta heriotza* liburuan, hetero izateaz baino, hetero jarduteaz pentsatzeko egiten duen gonbitak. Izan ere, heteroaraua desirarekin lotzen dugu lehenengo, baina hori baino askoz gehiago da. Eta nik uste dut pertsona berarekin edo antzekoekin oheratzen jarraitu arren, aritu gaitezkeela heteroago edo ez-hain hetero, eta mugimenduak egon daitezkeela oheaz beste ere.

Erregimen politiko bat da.

Bai, eta simulakro bat, teatro bat, estruktura ekonomiko eta psikologiko bat... Ni saiatzen naiz gero eta kontzienteago izaten noiz eta zertan ari naizen hetero jokatzeko. Zain nago, oraindik ez dit inork galdetu: heteroa al zara? Askok pentsatu dut horretan, zertan naizen oso heteroa, eta zertan uste dudana ez naizela hain heteroa. Zertan des-heterotu naizen eta zertan ez.

Liburura etorruta, heteroarauaren barruan kokatzen dira pertsonaietako asko, bai harreman sexu-afektiboetan baina baita, adibidez, aitekiko eta, aita biologiko, kultural eta politikoei hain

rremanetan ere. Autoritatearekiko harremanean heteroak dira. Transfeminismoari esker kulturalki des-heterotzeko mugimendu batzuk egiten ahalegindu naiz: ez dizkiet nire lanak kontrasterako aita kulturei pasatzen, ez dut autoritatea hor bilatzen, baizik eta nire tresnak eta kapital kultural pilatua ahizpekin konpartitzen saiatzen naiz, eta nire kide emakumezkoak, bollerak, marikak entzun, irakurri, ulertu nahi ditut, nire burua haiekiko konbertsazioan kokatzeko.

Ipuinetako korapilo asko ere heteroaruari loturikoak dira.

Bai. Pertsonaia asko bi indar kontrajarriren artean tenkatuta daude: nahi dute aita hil eta aitari bizirik irauarazi, deseroso daude baina ez dute jokoa uzten, aldi berean nahi dute hor egon eta hor ez egon. "Gizakiaren adin guztiak" ipuinean aitari bizirik eta indartsu eutsi nahi dion familia bat ageri da. Igeriketa erronka bat antolatzen dute aitak eta bere bi seme-alabek parte har dezaten, eta familiak dena prestatzen du aitak irabaz dezan. Alabak izugarrizko lasaitua hartzen du aitak oraindik irabaz diezaiokeela ikusten duenean, zerbait askatzen zaio paparrean. Aitaren zahartzaroak sortzen didan inpresiotik idatzi nuen ipuin hori; baina gizartera zabaltzen badugu, ez al da jokoa beti aitak irabaz dezan antolatzen?

“ ”

Ez gustatzeko arriskuarekin ere esatera ausartzea inportantea iruditzen zait fundamentuzko zerbait egiteko

Irakurketa teorikoago horiek nabaritu arren, ez da batere liburu panfletarioa.

Lagun idazle batek idatzi zidan "Literatur lezioak" amaitu bezain pronto, esanez birrintzailea iruditu zitzaioela: "Gorrotatu dut editorea, gorrotatu dut idazlea eta gorrotatu dut nire burua idazlearekin identifikatuta sentitu naizelako, eta horrelako harremanetan korapilatu izan naizelako". Ipuin horri dagokionez, editorea zer esanik ez, baina idazlea ere ez da harrotzeko moduko leku batetik harremantzen editorearekin. Hor kontatzen den antzeko lokatza bizitzen ari nintzenean *Kontrako ezta-rritik* idazten ari nintzen, burua teoria feministaz beteta neukan; teoria bane- kien, baina berdin *erori* nintzen. Gure

kutrekieretan kateatzen gara, gure zu- loetan. Saiatu naiz ipuinetan botereke- riaz funtzionatzen duten gizonezko per- tsonaiez gain, emakumezko pertsonaiek harreman horietan jartzen dutena ere erakusten, haiek ekuaziotik atera ordez.

Zaila da desbotereturen alderdi kutrea erakustea.

Familia nuklearra apurtzeari edo gain- ditzeari buruz hitz egiten dugunean, heteroarua kritikatzeko dugunean, bes- te borroka askotan bezalaxe, gauza bat gertatzen da: gainditu edo puskatu edo aldatu nahi dugun horrek eraiki gaitu, horren gainean bizi gara, batzuk beste- tzuk baino gehiago. Politika behar dugu, behar ditugu teoria eta esloganak, pen- tsamendu zorrotza, baina literaturak ez du zertan izan gauzak nolakoak izan behar luketen esateko lekua, ezpada konplejizatzea eta erakustekoa. Nola mugitzen gara? Zer gertatzen da gure barruko uretan? Nola maitatzen dute pertsonaiek? Nola desiratzen dute? Zer nahi lukete, baina zer egiten dute? Irudi- tzen zait konplexuak izateko lekua dela literatura, ez lezioak ematekoa.

Adibidez, Annie Ernauxen *Pasio hutsa* irakurtzen dut, eta, hasteko, haserretu egiten naiz tituluarekin, ze niretzat ez da pasioa, obsesio bat da, kateatze bat eta toki gaixo bat; eta, aldi berean, izugarriz- ko liburua iruditzen zait. Irakurtzean sufritu egiten dut, nire burua denbora guztian oihuka ari zaio narratzaileari, *alde hortik!*; baina zergatik idatzi zuen Ernauxek? Hain zuzen, ez zelako joan. Eta inportantea da esatea feministak ere kateatzen garela harreman itogarrietan, boterekeriazkoetan, gure maitasuna ez dela *garbia*, denok dauzkagula zuloak. Inor ez da beregaina, denok gara men- dekoak, eta inportantea da literatura feminista hori guztia eskura edukitzea. Baina, inportanteagoak dira lagun onak, esango dizutenak: irten hortik. Eta emango dizutenak denbora horretarako.

Ipuinetako pertsonaiek jokatzeko du- ten modua ez da ereduagarria, baina, aldi berean, ez daude eroso egoteko bezain itsu. Bestalde, badira marko hetero horren barruan samur eta ondo mai- te duten pertsonaia ere, zailtasunak zailtasun, elkar zaintzeko ariketa egiten dutenak.

Ez nuke elkarrizketa amaitu nahi hizkuntzaren lanketa aipatu gabe. Etxeko marka da zorroztasuna eta aberastasuna zure kasuan, baina



oraingoan beste urrats bat egin duzula iruditu zait, bereziki "Ukitzen gaituen ura"-n.

"Ukitzen gaituen ura" *Jenisjoplin*-en prekuela da, nolabait. Gozamina izan da idaztea. Gure nerabezaroko paisaia sonoroa harrapatu nahi nuen: hitz egiteko moduak pertsonaiez eta garaiaz esaten duena. Ipuinak euskara batuan idatzita daude, baina zipriztinduta daude euskañolez, mendebaldeko berbakeraz, sukalkiz. Niretzat oso inportantea da hizkuntza ondo ardaztuta egotea —sintaxia, azpiko erreka—, euskarak nola funtzionatzen duen jakitea. Hizkuntza animalia bizi bat da.

Idazteko hizkuntza ezagutu behar dugu, jakin behar dugu nondik hartzen duen arnasa, bere potentzia eta posibilitateak ezagutu, ikusteko nondik zikindu edo hautsi dezakegun. Ustez erdarakadarik batere gabeko liburu pilo bat dago euskaraz, nire ustez, gaizki idatzita. Gaizki idatzita diot hizkuntzak ez duelako dantza egiten, ez ezer esaten, kartoizkoa delako. Aldiz, orain aterako den Mirenen [Amuriza] *Pleibak* nobela euskal literatura hurrengo fasera eramateko behar genuena delakoan nago. Uste dut bera dela euskarari ondoen entzuten dakien idazleetako bat, izugarritzko belarria dauka eta, hain justu horregatik, sartu ditzake "pollalapiz bat etorri zait" edo "hauek notas batzuk izan dira beti" moduko esaldiak, aldi berean esango baitizu "tipo narrutari batek". Badaki narrutari eraikitzen, eta jarri egiten dizu, baina *zorrra* esan behar duenean esango du *zorrra*, zergatik ezin dugu esan *zorrra* euskaraz liburu batean?

Beste edozein arlotan bezala, zure tresna ondo ezagutzen baldin baduzu askoz ere aukera handiagoa daukazu askatasunera jotzeko. Hizkuntza arduratik edo arduragabekeriatik *hautsi*



“ ”

Idazteko hizkuntza ezagutu behar dugu, bere potentzia eta posibilitateak ezagutu, ikusteko nondik zikindu edo hautsi dezakegun

daiteke. Uste dut bereizi behar ditugula euskaraz sendo idatzita dauden liburuak, zikinduta, zipriztinduta edo behartuta egon arren badutenak mugimendua, erritmoa, kolorea, bizia, belarria... eta, ustez, euskaraz idatzita egon arren, gaztelaniaz idatzita dauden testuak. Honi buruz oso gutxi hitz egin da, baina urgentea iruditzen zait. Euskaraz ondo egiteak ez du esan nahi kartoizko eta denok berdin. Ardaztu dezagun tresna sakon eta gero apurtu dezala bakoitzak nahi duen modura, jolas dezagun hizkuntzarekin jende gehiago kabitzeke, eta irudimena zabaltzeko. ●

Hesi harpa
LARRABETZU

**LARRABETZUN,
EUSKARAZ BIZI**

www.larrabetzu.eus / udala@larrabetzu.eus

UEMA UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



GEROTIK...

NIKOLAI TXERNYXEVSKI

‘ZER EGIN?’

Galdera handiak eta ametsak PAUL BEITIA ARIZNABARRETA

Literaturako klasikoei buruz pentsatzeak ezinbestean gaur egundik pentsatzea esan nahi du. Hain justu, *klasiko* izendapenak horixe du baldintza: gaurdaino iritsi diren obrak dira eta, beraz, haiei buruz pentsatzea obra horiek gugaino nola eta zergatik iritsi diren pentsatzea da, galdetzea obra horiek oraindik nola eta zertarako irakurri beharko genituzkeen. Alegia: haien baliozkotasuna gaur egundik epaitzea.

Hori, agian, gu bezalakoek kontua izango da: ez diegu liburuei testu geldi gisa begiratzen ohi, beren horretan ez zaizkigu hainbeste ere axola, ez daukagu denborarik horretarako, bai, hori da, hori izango da segur aski, hain denbora gutxi uzten digute lanaren asperrak eta bestelako egiteko inportanteek, non ez baitugu astirik filologia-lanetan galtzeko.

Iraultzari buruz pentsatzea –bai, ondo leitu duzu; hartu dut hitz maiztu hori ahotan–, halaber izan daiteke lan filologiko edo, are, arkeologikoa: garaiz kanpo gelditu den objektu zaharri bezala begiratzen diote gehientsuenek, tristuraz batzuek, beren buruei galdetuz nola litekeen behinola ideia horrek balio izatea hainbeste jenderi. Iraultza egin nahi dugunon-

tzat, ordea –segi, segi; ondo leitu duzu-eta–, iraultzaz pentsatzea beti da iraultzaren gaurkotasunaz pentsatzea.

Nikolai Txernyxevskik 1863an argitaratutako *Zer egin?* nobela, hain zuzen, aitzakia ezin hobea da literatur klasikoei eta iraultzari buruz pentsatzeari ekiteko. Txernyxevski errusiarra zen, ez ordea boltxebikea. 1889rako hila zen. Sozialismo utopikoari, nihilismoari eta Ludwig Feuerbachen materialismoari lotu zitzairen, Errusiako populismo iraultzailearen buruzagietakoa izan zen, estatu tsaristaren kontra eta nekazarien iraultza sozialistaren alde suharki jardun zuen. Garesti atera zitzaion jardun hori: kartzelan idatzi zuen *Zer egin?*, zentsurapean, eta periodiko batean argitaratu zioten atalka.

Txernyxevski ez zen boltxebikea izan, baina ezin neurtuzko eragina izan zuen ondorengo iraultzaileen gain. Marxek "ekonomia burgesaren porrota maisuki nabarmen utzi" zuela dio. Plekhanovek honako beste hau: "Nork ez du nobela ezagun hau irakurri eta berrirakurri? Nor ez da hobea, ausartagoa, puruagoa bihurtu haren eragin onberaren pean? Guk guztiok indar morala atera dugu bertatik, eta etorkizun hobe baterako itxaropena".

Lenini buruz ere esan ohi da, Siberian erbestean zegoela, Marx eta Engelsen argazki banaren ondoan zeukala Txernyxevskirena jarrita. Hor daukagu 1902an idatzitako panfleto ezaguna ere, hizpide dugun nobelaren omezez *Zer egin?* izenburua daramana.

Aurten dira ehun urte, justu, Lenin hil zela. Ehun urte ez dira ezer. *Estetua eta iraultza* liburuaren amaieran idatzi zuena datorkio bati burura, 1905eko iraultza saiakerak liburua- ren idazketa etenda, dioenean "askoz probetxugarriagoa" dela "iraultzaren esperientzia bizitzea hari buruz idaztea baino". Galdera horri erantzuten laguntzen digu *Zer egin?* nobelak: nola izan dezake literaturak eragin praktiko iraultzaren esperientzian?

"Nahikoa dugu", esango du, arrazoi osoz, irakurleren batek. "Literaturaz irakurtzeko ireki ditut orriok eta, iraultza aipatzea, bale, baina hau da matraka! Noiz kristo hasiko zara literaturaz hizketan?". Barkatuko dit irakurleak, horra nindoan-eta, hain justu: interesgarri zaidana da aztertzea testuak berak zein bide darabiltzan eduki zuen eragina ahalbidetzeko.

Literatura iraultzaileak ohi duen bezala, *Zer egin?* bere ideien aldarrikapena bezainbat da bere garaiko

pentsamendu arruntari eta intelektualen literaturari egindako kritika. Horretarako, Txernyxevskik finezia handiz ateratzen du tarteka istoriotik bere ahotsa, eta hartatik kanpo dagoen pertsonaia bat darabil: irakurlea bera. Txernyxevskik *irakurle pixkorra* deitzen dio eta hari galdetzen dio zuzenean istorioan kontatutakoari buruz, hari aitortzen dizkio bere trikimailu literarioak, harixe zuzentzen dizkio bere kritikak eta irainak, eta pare bat alditan liburutik bota ere egiten du, harik eta *irakurle pixkorra*-k galdetzen duen arte: "Ze idazle klase da hau, niri hitz egiten didana eta hain lotsagabe, gainera?".

Guk *irakurle pixkorra*-ren egungo euskal aldaera ezagutu berri dugu, iritzi sendoak izan ohi ditu beti eta errieta egin berri digu literaturari buruz ari ez garela-eta. Irakurle intelektual arruntaren pertsonifikazioa da, Txernyxevskiren garaian eta gurean: ehun eta hirurogei urte ere, onar dezagun, ez dira ia ezer.

Pertsonaia hori kontakizunetik irten eta hari buruz gogoetatzeko darabil idazleak, baina kontakizuna bera aski simplea da: maitasun istorio bat da, finean -hori ez zenuen espero eta sumatu zaitut berriz ere adi, *irakurle pixkor* hori-. Vera Pavlovna, Lopukhov eta Kirsanov gazteei jarraitzen die kontakizunak, eta haien maiteminak, bizimoduak eta ideiak erakusten ditu, XIX. mende amaierako errusiar *gazteria arraro* berriaren ezinegonen eta garapenen erakusle. Hori bai! Hara non datorren berriro. "Banekien liburuak ezin zuela panfleto hutsa izan. Bere garaiko jendeari buruzko galderak egiten ditu, baina, jakina, ez du erantzunik ematen, literatura onak *behar* duen bezala. Bane-


kien Txernyxevskik talentudun gizona behar zuela".

Oker zaude, *irakurle pixkor* hori, azkarregi ateratzen dituzu ondorioak. Kritikak urtetan esan izan du *Zer egin?* kalitate literarioak gabeko lana dela, eta Txernyxevskik bere egiten ditu hitz horiek. "Ez daukat talentu literario apurrik ere", dio nobelaren bertan, "nik ez baitut istorio hau kontatzen nire artista-sona handitzeko, kontatzen dut gertatu zen bezalaxe". Eta horrek ez du zalantzan jartzen Txernyxevskiren balio literarioa, ezta nobelaren edertasuna ere, ezpada *kalitatea*-ren ulerkeria bera. Bete nahi duen helburuari ez beste ezeri ausart heltzen dion literaturak literaturaz saltzen diguten ideia jartzen du zalantzan.

Txernyxevskik bere mendearen umeak erakusten ditu, "belaunaldi berriko jende arrunt eta zintzoa, halako ehunka daude", eta kontatzen digu haien bizimoduarekiko galdera handietatik, liburuetatik eta ametsetatik, askatasuna eta berdintasuna eta iraultza beren ideietan eta bizimoduetan nola agertzen diren. Eta horrela bihurtu zen liburua *indar moral*, horrela konektatu zuen mendearen ume horiekin berekin, lana beste modu batera antolatzerara abiatu zirenak, iraultza benetan egitera iritsi zirenak.

Entzun zaitut ahapeka, *irakurle pixkorra*; jada ez zaizu halako ziurtasunik sumatzen, baina badakit oraindik ere entzuten duzuna inuzentea eta erridikulua iruditzen zai-zula. "Irakurle

arruntak, ordea, bere kabuz ulertzen du", dio Txernyxevskik. Horra gaurkotasuna: itxaropena galduta uste genuenoi suspergarri zaigu Rakhmetov erraldoiaren diziplina eta Veraren ontasuna, bihotz-zabalgari zaigu historiaren askatasuneranzko martxa, neska baten ametsean agertua, edo "zoriontsua izateak guztien zoriontasuna desiratzea esan nahi du" esaldia mutil arrunt baten ezpainetan. Ez baitira galdera handiak eta ametsak agortzen eta, aurretik beste hainbati bezala, gure mendearen umeoi ere ari da, zera dioenean: "Horrela errepikatuko da historia berbera bestelako itxuraz. Eta halaxe jarraituko du, harik eta jendeak esaten duen arte: *orain ondo gaude*". Ehun eta hirurogei urte ez dira alferrik pasatzen, baina, azken batean, ez dira ia ezer. ●





Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	
1																							
2																							
3																							
4																							
5																							
6																							
7																							
8																							
9																							
10																							



2. Ezker-eskuin

9. Ezker-eskuin

6. Goitik behera

EZKER-ESKUIN:

- 1. Gainerako, gaindiko. / Ebaki sakona. / Gobernuak ezarrirako debeku.
- 2. Ondoko argazkietan agertzen diren bi lagunek ARGIArekin kaleratu berri duten erraldoiei buruzko ipuina. / Zur.
- 3. Debako auzoa, Gipuzkoa. / Zerbait gorago dagoen lekuren batera eraman. / Da, niri. / Jantzi baten atzeko alde, ifrentzu.
- 4. Elkartu. / Barazki hostotsua.
- 5. Adar txiki, kima. / Hazi biribil berde.
- 6. Erdi hitzak hitz elkarketan hartzen duen forma. / Arana a barik.
- 7. Nekazariaren lanabesa, lau edo bost ohol horzdunetz osatua. / Behizain.
- 8. Gubernuburu. / Baratzea lantzen duen pertsona.
- 9. Irmo ezarri. / Kutsatzea. / ... Bereziartua, kazetaria.
- 10. Nekazariaren lanabes, lau edo bost ohol horzdunetz osatua. / Gurdia. / Hegazti harrapari. / Afixa.

GOITIK BEHERA

- 1. Galtzontziloa.
- 2. Dimako auzoa, Bizkaia. / Kontsonante errepikatua.
- 3. Dozena erdi (alderantziz). / Emakume.
- 4. Lehergai ezaguna. / Begirada.
- 5. Helburu, xede. / Gehiegizko arazoan ondorioz, erabat larritu.
- 6. Lerro kurbatua. / ... Larrea, ilustratzailea.
- 7. Zakur. / Baserriko animalia.
- 8. Aitaren eginez.
- 9. Zerbait segurki egiaztatu.
- 10. Historiaurrean bereizten diren garaietako bakoitza. / Perpausak edo osagaiak lotzen dituen hitza.
- 11. Kriptonaren ikurra. / Estrontzioaren ikurra.
- 12. Joan den urtea. / Presio unitate.
- 13. Nahiz. / Haur hizkeran, altxatu.
- 14. 501, erromatar zenbakiz. / Nafarroako udalerria.
- 15. Lur puska belardun. / Guztiz txikia dena.
- 16. Omen. / Azantz, hots.
- 17. Bizkaiko herria.
- 18. Nafarroako ibaia, besteak beste Kanpezutik eta Lizarratik igarotzen dena.
- 19. Moneda japonesa. / Ordaintzeko betebehar.
- 20. Umeen Gabonetako Parkea. / Ardi hitz elkarketan.
- 21. Frantsesez, kalea. / Aldapa.
- 22. Zenbakiez mintzatuz, bi zenbaki osoren zatidura gisa adieraz daitekeena.

Betegrama

TAULAN HUTSIK AGERTZEN DIREN LAUKIAK OSATU ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ GUZTIAK IRAKURRI AHAL IZATEKO.

			A				
		A		G			
	O					R	
M	O						Z
		A					K
		A		I			
			A				

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- 1. Bikoitz.
- 2. Zirgiloak.
- 3. Lehergailua.
- 4. Kalitatearen marka.
- 5. Nafarroako herria.

EBAZPENAK

			A				
		A		S		S	
		I		A		I	
		K		A		A	
				R		D	
		Z		A		L	
				R		O	
				A		L	
				I		G	
						A	

- 5. EKALPA
 - 4. LABEL
 - 3. BONBA
 - 2. OBOAK
 - 1. DOBLE
- 5X5:

ERRALDOIA: EGUR, 3. LASTUR, IGO, ZAIT, BINPER, 4. BATU, AZA, 5. ABAR, ILAR, 6. ERT, RN, 7. AREA, UNAI, 8. PRESIDENTE, BARATZEZAIN, 9. IRMOTU, KUTSAPENA, GORKA, 10. ARE, ORGA, ARRANO, KARTEL.
 GOITIK BEHERA: 1. GALTZAZPIA, 2. OBA, RRR, 3. IES, EME, 4. TINT, 5. ITU, ITO, 6. KURBA, ADUR, 7. OR, ABERE, 8. AITARENKA, 9. SEGURTATU, 10. ARO, ETA, 11. KR, SR, 12. IAZ, BAR, 13. ALA, APA, 14. DI, ITUREN, 15. ZOTAL, NANO, 16. EI, ZARAT, 17. NABARINIZ, 18. EGA, 19. SEN, ZOR, 20. UGR, ART, 21. RUE, IKE, 22. ARRAZIONAL.



Elkar besarkatzeko musika

UXUE GUTIERREZ LORENZO MIKEL ULLI

Aspaldi ezagutu genuen gaur gaurkoz Añube taldeko abeslari den Aitor Bedia Hans. Garai berean adiskidetu ginen egun Añube taldeko gitarra jotzaile ohia den Beñat Gonzalezekin. Unibertsitateko garaian izan zen, Debagoienako bi gazteak musika zainetan zeramatera Bilbora ikastera etorri zirenean. Askotan izan ditugu lagun Beñaten gitarra eta Hansen ahots urratua. Gaztetxean, plazan ala etxean, zazpikaleetako taberna zuloetan eta unibertsitateko izkina ezkutueta. Hamar urte beranduago musikari profesionalak ditugu gure lagun kuttunak.

2020an sortu zen Añube taldea, Bergarako, Arrasateko eta Ataungo kideez osatuta: Aitor Bedia Hans (ahotsa), Julen Garmendia (saxofoia), Beñat Lizarralde (baxua), Egoitz Goikoetxea (bateria), Jon Uribealzo (gitarra) eta, Beñat Gonzalez lekukoa hartuta, Beñat Abasolo (gitarra). Bi disko kaleratu dituzte sorreratik: 2022an *Añube* eta 2024an ikusi du argia

Errautsetatik loratzen bigarren lanak. Hasieratik izan dute harrera beroa, eta kontzertu jendetsuak jo dituzte han eta hemen. Gaurkoan Bilbon izan dugu aña-betarren bisita. Sarrera guztiak salduta, Bilboko Kafe Antzokia goraino beteta dagoela agertu da oholtzara seikotea.

Lehen ilaretako fan sutsuen artean integratuta, flipatzen ari gara aspaldiko lagunak ikustera bertaratu garen hiru adiskideak. Elkarri utsita, hunkituta eta pozik ari dira kantuan antzokia bete duten 600 ahotsak. "Ostras, oso fuertea da hau", esaten diogu batak besteari. Kantu bata bestearen segidan, den denetan ditu jarraitzaileak Hansek. Lagunen babesa eta beroa ere nabarmena da. Kanta askotan gerturatu zaizkio lagunak ia eszenatoki gainera, eta beste askotan gerturatu da bera lehen lerroetan eta oholtzaren bazterrean dituen lagun eta kideengana.

Hortxe, izkinatxo ilun batetik begiratzen dio Beñat taldekide ohiak Hansi, pozik pozik baina itzalean. Kontzertuaren

AÑUBE

NOIZ: azaroaren 9an.

NON: Bilboko Kafe Antzokian.

erdialdean gu ere hurreratu gara Beñat dagoen txokora, Hans eta gainerako taldekideengandik gertu eta Beñaten itzalarekin bat eginda. Kontzertuaren zatirik politena izan da. *Entre paredes de ladrillos rojos* kantaren bertsio sarkorra, Neomak-eko Leire Arbeok lagunduta kantatutako *Kanpazar 1975* edo *Desegin* abestiaren mezu indartsua.

Ez dut musika estiloez hitz egiteko aski ezagutza, eta kontzertuak sorrarazten dizkidatzen sentimenduekin deskribatzen ditut. Añuberena "elkar besarkatzeko musika" kategorian sailka daiteke. Azken kantuak borobildu du, nola ez, gau magikoa. Añuberena 'hit'-a: The Baboon Show taldearen *Radio Rebelde*-ren bertsioa. Zuzenak bezain *azertatuak* Hansen berbak: "Ez zaude bakarrik, ni zurekin nauzu...". "Ongi etorri etxera, gaizki zaudenean...". Eta horrelako zerbait da aña-betarren musika, beti bueltan datorrena, elkar besarkatzen diren aspaldiko bi lagun enkontru baten modura. ●



LIBURUA

Nire neure



BEGIAK ZERUMUGAN

IDAZLEA: MIREN AGUR MEABE

ILUSTRATZAILEA: ANE PIKAZA

ELKAR, 2020

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Askotariko testuak eta liburuak argitaratu ditu Miren Agur Meabek. Literatur genero guztiekin aritu da: haur eta gazte literatura, auto-fikzioa, eleberria, ipuinak, poesia... eta batzuetan klasifikatzeko gaitzak diren liburuak ondu ditu, gaurkoan aztertuko dugun *Begiak zerumugan* kasu.

Haur eta gazteentzat idatzitako poesia ilustratua dela esango banu egia izango litzake, baina, aldi berean, motz geratuko nintzakeela uste dut. Alde batetik, haikuek, lo kantek, ahozkotasunetik gertu dauden poemek, aforismoek osatzen baitute liburua (besteak beste), nortasun propioa eta sakona emanda liburuari. Beste alde batetik, Ane Pikazak testuetako irudi eta sinboloak ezin hobeto jasotzeaz gain, istorioaren haria bere egin eta arintasuna beste detaille eman dizkiolako (horma-irudia dauka gehigarri).

Begiak zerumugan ezartzen dizkigu Meabek hasiera hasieratik, protagonistak zerumugarantz egingo duen bidaiaren testigu izango baita irakurlea: txikitasunetik handitasunera egiten duena, ezinegonetik barne segurtasunera iluntasunetik argitasunera. Heroiaren bidaiaria moduko bat da finean.

Bidaia hau lau atalek, sarrera poema batek eta laburpen batek osatzen dute. Sarrerako poemak (*haize arrosaren meza*) liburuan aurkituko ditugun lau atalak aurreratzen dizkigu. *Har ezazu fardela* da lehenengoa eta protagonistaren barne mundua, emozioak jasotzen ditu (*adorea, poza, etsipena* eta abar). *Argi- itzaletan mela* atalean bidaia zailtzen duten kanpo agenteak dira protagonistak: bidaiaren gora beherak (*bidea, labirintoa norabidea...*) eta klimatologiarekin lotutakoak (*elurpean, putzuak...*). Hirugarren atalean barruko uhartera aurkituko du protago-

nistak (*Panpina, irlako etxea*). Eta *Arimaren arbela* den zeruak emango dio kontenplaziorako espazioa (*Zeruaren azalak, nire galaxia, ilargi amandrea*). Laugarrena eta azkena da *Han-hemen* marinela, espazio zabalak eta naturaren presentzia dira kontu aipagarriak. Kapitulu honetan aurkitzen du protagonistak *nire neure etxea*, sosegua. Bukatzeko, laburpen poemak errematatzen, borobiltzen du liburua.

Klasifikatzeko zaila den liburua izateak liburua berezi egiten du; kutixi bat da, opari bikaina. Hizkuntza aldetik (lexiko zein sintaxian) aberatsa eta jostaria, literatur baliabide aldetik distiratsua, forma aldetik anitza, ilustrazio aldetik magikoa eta magnifikoa. Baina neure buruari galdetzen diot klasifikatzeko zaila izateak linbo batean utzi ez ote duen materiala. Honako hau ez dadila izan liburuari egiten zaion literatur kritika bakarra. Dabilela liburua eskutik eskura. ●

✓ 346.000 biztanleko lurgune euskalduna

✓ 111 udal

arnasa gara

euskaraz gara

"Beti lurpean eta bazterretik zatozen erreka horri, zuri, itsasoa zor dizugu, justizia zor dizugu, ausardia zor dizugu, etorkizuna zor dizugu. Eta gure lo kanta berrieekin amets egingo duten haur jaioberriak esnatu daitezela euskararen herrira".

Jon Maia Soria





MUSIKA

Gabriel Fauré: Requiem bat baino askoz gehiago

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Frantziako musikagileei buruz hitz egitean, Claude Debussy eta Ravel etortzen zaizkigu burura. Bada dibertitzen denik ere, bata edo bestea defendatuz garai guztietako musikagile frantziar onena bezala. Egia esan, bi jeinu absolutu dira, beren garaiko zirkunstantzien ondorio. Oso kate-maila garrantzitsuak izan ziren Frantziako musikaren historian, eta Europako musikaren historian orokorrean.

Baina kate-maila horren aurretik beste bat zegoen: César Franck eta Gabriel Fauréna hain zuzen ere. Beren ondorengoan osperik ez duten bi aitzindari distiratsu.

Gabriel Fauréren figura aztertuko dut. Lehenik eta behin, azaroaren 4an bete zelako haren heriotzaren mendeurren. Ez dira falta izan konpositore handi honen omenezko kontzertuak. Batez ere bere *Requiem* zoragarria interpretatuz. Baina bada beste arrazoi bat hura gogoratzeko. Gure Maurice Ravelengan eragin handiena izan zuen irakasleetako bat izan zen. Esan dudana bezala, frantziar musikari handienetako bat da Ravel, eta, zalantzarik gabe, garai guztietako euskal konpositorerik garrantzitsuena da. Bidezkoa da Ziburuko musikariaren talentu handia moldatu zuena gogoratzea.



Eta, jakina, bada hirugarren arrazoi bat berari buruz hitz egiteko. Bere musika-ondare zoragarria. Ez da bere ondorengoak bezain ospetsua, bai, baina pianorako konposatu zuen musika da entzun daitekeen gauzarik ederrena eta iradokitzaileena. Bere harmonien maisutasunak, "Fauré soinu" bereziak, lanbro berezi batez betea, harmoniaren mundua artez maneiatzen duenak bakarrik lor dezakeen *haloa*, bere piano-musika harribitxi errepikaezin bihurtzen dute.

Oro har, formatu handiei eta handitasunari okorrean ihes egiten ziren konpositorea izan zen. Esaten denez, bere garaiko

musikari guztien artean bera izan zen wagneriar eraginetik musika independentea egiten hobekien lortu zuena. Gauzak ez ziren errazak izan berarentzat, akademizistek iraultzaile arrisku-tutzat jotzen baitzuten. Kontserbatorioko zuzendaria izan zen, eta pulsu irmoz maneiatu zuen hil arte. Izan ere, esparru akademikoan gertatzen ziren nepotismo eta bidegabekeria batzuk ezabatzea lortu omen zuen, eta horrek liskarrak sortu zizkion.

Baina, zalantzarik gabe, Gabriel Fauréren gauzarik garrantzitsuena haren ondarea da, maisu eta egile bikaina zen aldetik. Kolorearen zentzua magistrala da bere lanetan. Bestalde,

oso zaila da interpretatzeko musikari ez profesionalentzat, bertuosismoa sistematikoki saihesten duen arren. Bere legatutik, errepertorioan gehien interpretatzen den obra *Requiem* da, bere garaian "hildako mezen" tradizioan inflexio-puntua izan zena. Hala ere, lehen esan dudana bezala, piano-musikaren kolorea eta giro berezia paregabeak dira musikaren historian. *Nocturnoak* eta *Barcarolak* dira goxotasunaren *kintesentzia*. Azkenaldian, sarriago interpretatzen dira, baina ez dira programatzen guk nahi bezain sarri. Aukera baduzue, entzun pieza hauek, mesedez. ●



LEGAZPIN
BIZI
EUSKARAZ!



Hurritza astindu nahi dutenak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Bakoitzak bere afizioak ditu, intentsitatearen arabera adikzio bihur daitezkeenak edo, gutxienez erdibideko zerbait. Afikzioak beraz? Hitz egokia izan daiteke liburu sorta batekin gertatu zaidanaz aritzeko, fikziotik asko duena, batez ere teknikan, baina mamian gertakari historikoak dauzkana, detaile handiz dokumentatuak gainera: Antonio Scuratik idatzi duen Mussoliniri buruzko tetralogiaz ari naiz, zeinaren azkeneko totxoia joan den astean irentsi bainuen, jonkia ez bestea.

Zirkulua ixten duen liburua da. Lehenbiziko bolumenean faxismoaren sorrera eta boterera iristeraino egindako maniobrak xehe-xehe aletu ondoren –bereziki sarkorra iruditu zitzaidan ezkerreko alderdi eta sindikatuen aurkako biolentzia eskuadrista gupidagabeaz egiten duen erretratua–, ondorengo bi liburuetan Mussoliniren erregimena nola egonkortu zen kontatu du, Vatikanoren bedeinkapen eta guzti; eta Alemania naziarekin egindako ententea, II. Mundu Gerraren atarikoak, abentura kolonial italiarrak... Ezagutzen omen dugun historia, askok ezagutzen ez genituen detailean bitartez antzaldatua: orrialde horietan garaiko pertsonaia garrantzitsuek piztiaren aurrean izandako pasibotasuna, utzikeria eta, are, unerener batean Mussoliniri izan zioten miresmena agertzen dira –Winston Churchill eta Benedetto Croce, une historiko desberdinetan, *Duce*-ari txalojoka: gaur egundik begiratuta ez dirudi sinestekoa–. Nonahi hedatzen ari den ultraeskuin berria serio hartu behar dela pentsatzeko abisu ugari aurkituko du irakurleak.

Baina sagako azken liburua beste mota bateko abisuak dakartzala iruditu zait, errepikatu daitezkeen beste historia batekin egiten duela ispilu-jokoa alegia.



M: l'ora del destino (M: patuaren ordua) liburuan, Italia, Mussoliniren handinahikeriak hartaratu, batere prestatu gabe zeukan gerrara doa Hitlerren atzetik, arratoiak Hamelingo txirulariari segika abiatu ziren gisa berean, pentsatuz kontua azkar kitatuko dela eta harrapakinak banatzen direnean han eta hemen soldatutxoak kolokatuta edukitzea nazioaren onerako izango dela.

Badakigu zer gertatu zen, noski. Zortzi astean zanpatu behar zuen III. Reichak Sobiet Batasuna. Hebain-hebain eginda atera ziren nazifaxistak ekialdeko frontetik. 100.000 inguru izan ziren alferrrik hiltzera bidalitako italiarrak. Badakigu, jakin behar genuke, italiar batek aspaldi esana baita, Makiavelok alegia –eta gogoratzen ez duenarentzat, duela gutxi berri du Anjel Lertxundik *Berbelitzen hiztegia*-n–: “Nahi denean hasten da gerra, ahal denean bukatzen da”. Baina badirudi ez dugula jakin nahi.

Pasa den astean, Scuratiren liburutik begiak altza ditudan bakoitzean, notiziak larriagoak ziren: Joe Bidenek irismen handiko misilak erabiltzeko bai-

mena eman dio Ukrainari. Josep Borrell Europar Batasuneko diplomaziaburuak beste hainbeste egiteko eskatu die EBko estatu kideei. Eta Ukrainak erabili egin ditu misil horiek, Briansk eta Kursk eskualdeetan. Errusiak azaroaren 21ean Dnipro hiri ukrainarreko instalazio militarren kontra jo du erantzun gisa. Nobedadea Orennik (hurritza) izeneko misila izan da, zeinak Errusiatik jaurtita, 20 minutu baino gutxiago behar duen Europako edozein hiritara iristeko. Hiru kilometro segundoko abiadura hipersonikoak har ditzake. Munduan ez dago aire-defentsarako sistemarik hori geldiaraz ditzakeenik. Oraingoan, karga nuklearririk gabe jaurti du Errusiak. Abisu bat.

Misil esperimentalak dela eta Errusiak horrelako askorik ez daukala esan diote AP agentziari, anonimoki, AEBetako armadako bi ofizialek. Gerra nuklearraren atarian hurritza astintzeko gogoz jarraitzen duten arduragabe horien eskuetan, akaso, ez gara Errusiako estepara hiltzera bidali zituzten soldadu italiarrak baino askoz gehiago. ●

Sarean eduki guztiak irekita **zuri esker**

Lagundu sare
libreari eusten:

argia.eus/eginargiakoa

 ARGIA



Sinesten dut gure kulturan, gure hizkuntzan eta ohituren balioan, gure komunitatea batzen duen mamia direlako.

Asier Juaristi

Bazkide langilea
Publizitate digitala

1.200.000 pertsonako taldea gara, eta
sinesten dugu badela banka egiteko
beste modu bat. Eta zuk, zertan
sinesten duzu?



LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat